<p>5. ARAU BIDEZKO GARAPENA</p> <p>1. Euskadiko Kirol Lanbideen Jardueraren Lege proiektua izapidetzen jarraitzea.</p> <p>2. Kiroleko dopinaren aurkako Legea aldatzeko proiektuaren izapidetzearekin jarraitzea.</p> <p>3. Dopajea kontrolatzeko prozesuak arautzen dituen Dekretuaren proiektua izapidetzea.</p>		<p>5. DESARROLLO NORMATIVO</p> <p>1. Continuación de la tramitación del Proyecto de Ley del Ejercicio de las Profesiones Deportivas en el País Vasco.</p> <p>2. Continuación de la tramitación del Proyecto de Modificación de la Ley contra el Dopaje en el Deporte.</p> <p>3. Tramitación del proyecto de Decreto por el que se regulan los procesos de control de dopaje.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4. Dopajearen aurkako Euskal Agentzia sortu eta arautuko duen dekretuaren proiektua izapidetzea.</p> <p>5. Dopajearen arloan diziplina-zehapenak ezartzeko eta berrikusteko prozedura arautuko duen Dekretuaren proiektua izapidetzea.</p> <p>6. Kirol Entitateen Erregistroari buruzko 14/1998 Legea garatzeko Dekretuaren proiektua izapidetzea.</p>		<p>4. Tramitación del proyecto de Decreto por el que se crea y regula la Agencia Vasca Antidopaje.</p> <p>5. Tramitación del proyecto de Decreto por el que se regula el procedimiento para la imposición y revisión de sanciones disciplinarias en materia de dopaje.</p> <p>6. Tramitación del proyecto de Decreto de desarrollo de la Ley 14/1998 en relación con el Registro de Entidades Deportivas.</p>

PROGRAMA	PROGRAMA
4513 KULTURAREN SUSTAPENA	4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA</u>	<u>06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA</u>
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES
SAILBURUAREN KABINETEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE GABINETE DE LA CONSEJERA
KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DE LA CULTURA

MEMORIA

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren helburua da gure herriko kulturaren eta arteen adierazpideen, sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea bultzatzea (musika, antzerkia, dantza, liburua, ikus-entzunezkoa eta arte bisualak...), haien agenteen prestakuntza eta profesionalizazioa indartzea, eta herritar guztientzako kalitatezko kultura-eskaintza bat ziurtatzea.

Gobernuak oso egoera zailean gauzatu behar du bere lana kultura arloan, zenbait krisi elkartu direlako. Batetik, krisi ekonomikoa, baliabide ekonomikoak gutxitu dituen, publikoak (kultura sustatzeko aurrekontu publikoak), pribatuak (babes pribatuak) zein pertsonalak (familia-gastuen barruko kultur kontsumoa). Bestetik, krisi digitala, mundu digitala sortu izanaren ondorio: aukera berriak dakartzan arren, krisian jarri ditu negozio-eredu nagusi batzuk, kultur ohitura berriak eragin ditu eta, gainera, kultur kontsumoan jokabide-eredu berriak ere bai. Azkenik, mundu osora zabaltzearen ondorioz, eskala handiko krisia, enpresa multinazional eta produktu global ugari agertzearekin batera zabaldua, zeinak merkatotekniaren eta entretenimendu iragankorraren legeen baitan dauden, gero eta areago.

La Dirección de Promoción de la Cultura tiene como objetivo promover la creación, la producción y la difusión de las diferentes expresiones de la cultura y de las artes en nuestro País (música, teatro, danza, libro, audiovisual y artes visuales...), estimular la formación y profesionalización de sus agentes, y asegurar una oferta cultural de calidad para toda la ciudadanía.

La labor gubernamental en el ámbito de la cultura debe materializarse en una situación muy delicada, derivada de la confluencia de diversas crisis: una crisis económica, que ha generado un decrecimiento de los recursos económicos, tanto públicos (mengua de los presupuestos públicos para la cultura), como privados (mengua de los patrocinios privados) y personales (descenso del consumo cultural en los gastos familiares). Una crisis digital, derivada de la irrupción del mundo digital, con sus nuevos terrenos de oportunidad, pero que pone en crisis algunos de los modelos de negocio imperantes, y que está creando además nuevos hábitos culturales, y nuevos patrones de conducta en el consumo cultural. Y una crisis de escala, debida a la mundialización, con la irrupción de empresas multinacionales y productos globales, cada vez más sometidos a las leyes de la mercadotecnia y del entretenimiento fugaz.

Krisi-testuinguru horretan, funtsezkoa da kultur eragileengandik oso gertu lan egitea eta haiekin partekatzea diagnostikoak, aplikatu beharreko neurriak, eta, labur esanda, kultur politiken diseinua. Ildo horretan ari da lanean Kultura Sustatzeko Zuzendaritza X. Legegintzaldiaren hasieratik bertatik. 2016an ere, ildo horri areago jarraitu behar litzaioke, eta, ahal den neurrian, kultur politika ulertzeko modu hori sendotu behar litzateke, erantzukizun partekatuan oinarrituta eta legegintzaldi honen oinarritzko leloarekin bat eginda: “pertsonek helburu”. Sortzaileei lagundu behar zaie, kultura sortzen duten pertsonen, alegia. Eta kulturari lagundu behar zaio, sortzeaz eta birsortzeaz gain, pertsonak aberastu egiten baititu etengabe.

Bere lana garatzeko, oinarritzko hiru irizpideri jarraitzen die Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak: ANTOLATZEA, PARTEKATZEA ETA AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEA.

Egoera kritiko batean, baliabide publiko eta pribatuen murrizketari kultura ekoizteko ereduan izandako errotikako aldaketak eta kulturaren beraren banaketan eta erabileran izandako hondoko eraldaketak batu behar zaizkion egoera batean, premiazkoa da kultura-politikak berriz pentsatzea, efizientzia handiagoa bilatuta, sakabanaketa eta zatiketa saihestuta, eta etengabeko aldaketan dagoen errealitate batera egokitzeko ahalegina eginda.

Kultura-politikak ezin dira antolatu partekatze borondate argirik gabe. Orain bizi dugun krisialdi honetan inoiz baino premiazkoagoa da estrategiak batzea eta kultura-politikak partekatzea. Koordinazioa, komunikazioa eta parte-hartzea oinarritzko ardatza dira gure kultura-politiketarako, kultura-sektore eta kolektiboekin zein gure kultura-politiken erantzukizuna partekatzen dugun erakundeekin izan beharrekoa.

Aukera-berdintasuna sustatzea. Hiru alderdi ditu: genero-berdintasuna, emakume eta gizonen parte-hartzean oreka handiagoa sustatuta, hizkuntza-arazoa, euskararen presentzia eta erabilera sustatuta kulturaren alderdi guztietan, eta alderdi soziala, kultura-ohiturak bultzatuta gizarte-maila guztietan eta herritar guztiei kulturarako sarbidea erraztuz.

ANTOLATZEA

Kultura-politikak antolatzeko, eguneratzeko eta politika horiek efizientzia handiagoa izateko, funtsezkoa da gure herrialdearen kultura-errealitatearen ezaguera kuantitatibo eta kualitatibo sakonean oinarritzea. Hori lortzeko, bi dira Eusko Jaurlaritzaren erreminta garrantzitsuenak: alde batetik, Kulturaren Euskal Behatokia, informaziotik eta jakintzatik abiatuta euskal kultura-sistema osoa elikatzen duen erakunde egituratzailea, eta, bestetik, Kulturklik, herritarrei eta kulturaren profesionalen zabalduetako atari interaktiboa.

En este contexto crítico, es fundamental trabajar muy cerca de los agentes culturales, compartiendo con ellos los diagnósticos, las medidas a aplicar y, en resumen, el diseño de las políticas culturales. En ese sentido se viene trabajando en la Dirección de Promoción de la Cultura desde el inicio de la X Legislatura, y este año 2016, debería profundizar en esa vía, y consolidar, en la medida de lo posible, esta concepción de la política cultural, basada en la corresponsabilidad y coherente con el lema básico de la Legislatura: “pertsonek helburu”. Apoyo a las personas creadoras, las personas que crean la cultura y apoyo a la cultura que crea, recrea y enriquece incesantemente a las personas.

Para el desarrollo de su labor, la Dirección de Promoción de la Cultura sigue tres criterios básicos: ORDENAR, COMPARTIR, Y FOMENTAR LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES.

En una situación crítica, en la que la reducción de los recursos públicos y privados se suma a cambios radicales en el modelo de producción de la cultura y transformaciones de fondo en su distribución y su uso, es urgente repensar las políticas culturales, buscando una mayor eficiencia, evitando la dispersión y la fragmentación y haciendo un esfuerzo de adaptación a una realidad en permanente cambio.

No es posible ordenar las políticas culturales sin una clara voluntad de compartir. En época de crisis como la que vivimos es más urgente que nunca aunar estrategias y compartir políticas culturales. La coordinación, comunicación y participación, tanto con los sectores y colectivos culturales, como con las instancias institucionales con las que compartimos la responsabilidad de las políticas culturales, constituyen un eje básico para nuestras políticas culturales.

Fomentar la igualdad de oportunidades: Tiene tres aspectos: la igualdad de género, promoviendo un mayor equilibrio en la participación de mujeres y hombres, la cuestión lingüística, fomentando la presencia y el uso del euskera en todos los aspectos de la cultura, y la cuestión social, impulsando hábitos culturales en todos los estratos sociales y facilitando el acceso a la cultura de toda la ciudadanía.

ORDENAR

Para la ordenación, actualización y para una mayor eficiencia de las políticas culturales, es fundamental basarse en un profundo conocimiento-cuantitativo y cualitativo- de la realidad cultural de nuestro país. Para lograrlo, las herramientas más importantes del Gobierno Vasco son el Observatorio Vasco de la Cultura, organismo estructurante que alimenta la totalidad del sistema cultural vasco desde la información y el conocimiento, y Kulturklik, el portal interactivo abierto a la ciudadanía y a los profesionales de la cultura.

Kulturaren Euskal Behatokiaren lana indartuko da jakintzaren eta gogoetaren erreferentzia gisa. Ikerketan sakonduko dugu kulturaren bilakaeraren egoera- eta jarraipen-azterlanen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan zein nazioartean, kultura-politiken alorrean sektore-azterlan espezializatu guztiak koordinatzeko duen zeregina azpimarratuta. Emakunderekin elkarlanean, emakumezkoek berek eta emakumezkoek egindako lanek eremu kulturalean duten agerikotasunari buruzko azterlana egingo du Behatokiak.

Kulturklik, euskal kulturari dagokionez erreferentziazko ataria, eguneratzen jarraituko dugu, herritarrei zein kulturaren profesional guztiei zerbitzua emanez eta sare sozialetan duten presentzia sendotuz. Gaur egun indarrean dagoen proiektua garatzen jarraituko dugu, ataria etengabeko aldaketan dagoen errealtate berrira egokituta, arlo digitalaren zein kultura-erabileren arloaren barruan.

Kulturaren Euskal Behatokian zein Kulturkliken baterako lan-ildoak garatuko ditugu herrialdeko gainerako erakunde publikoekin batera Kultura Auzolanean esparruaren barruan.

PARTEKATZEA

Bera izaerak bultzatuta, kultura-alorrak zeharkako ikuspegi bat eta koordinazioko eta baterako laneko etengabeko ahalegin bat eskatzen du sorkuntzaren eta kultura-ekoizpenaren beraren agenteekin. Bizi dugun krisialdi honetan nabariagoa da estrategiak bateratzeko eta proiektuak partekatzeko premia.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak baterako politiketan sakontzen jarraituko du sektore profesional eta kultura-kolektiboekin, etengabeko elkarrizketaren eta koordinazioaren bidez.

Kultura Auzolanean Planak kultura-politiken erantzukizuna gurekin partekatzen duten erakundeekin, hots, foru-aldundiekin zein udalekin, koordinazioa, komunikazioa eta parte-hartzea areagotzeko behar den lan-esparrua eskaintzen digu. Halaber lantzen ditugu testuinguru honen baitan kulturako agenteekiko zeharkako zein sektorekako harremanak. 2014-2015 aldian Kultura Auzolanean planak aurreikusitako 20 proiektuak gauzatu eta burutu ditu, eta kulturaren fiskalitateari eta finantziarioari buruzko proiektuak aurrera jarraitu du, kulturaren sistema osoari zeharka eragiten diolako.

Kultura Auzolanean 2016 planak proiektu berriak aztertu eta gauzatu ditu, besteak beste kulturaren eremuan emakumezkoen eta emakumezkoek egindako lanen agerikotasuna eta txertaketa areagotzekoak; horretarako, Emakunderekin elkarlanean, emakumezkoek berek eta emakumezkoek egindako lanek eremu kulturalean duten agerikotasuna areagotzeko irizpideak garatzeari buruzko azterlana egingo du Behatokiak. Proiektu horiek Erakunde arteko Batzordearen eta Kulturaren Euskal Kontseilu berrituaren bidez garatuko dira, zein bere lantaldean.

Se reforzará la labor del Observatorio Vasco de la Cultura como referente de conocimiento y reflexión. Se profundizará en la investigación mediante estudios de situación y seguimiento de la evolución de la cultura tanto a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi como a nivel internacional, subrayando su papel de coordinación de todos los estudios sectoriales especializados en el ámbito de las políticas culturales. En colaboración con Emakunde, el Observatorio realizará un estudio sobre la presencia de las mujeres y de las obras creadas por mujeres en el ámbito cultural.

Seguiremos actualizando Kulturklik, el portal de referencia en relación a la cultura vasca, dando servicio tanto a la ciudadanía como a los distintos profesionales de la cultura, y reforzando su presencia en redes sociales. Continuaremos con el desarrollo del proyecto actualmente en vigor, adecuando el portal a la nueva realidad en permanente cambio tanto dentro del mundo digital como de usos culturales.

Tanto en el Observatorio Vasco de la Cultura como en Kulturklik desarrollaremos líneas de trabajo conjuntas con el resto de instituciones públicas del país dentro del marco Kultura Auzolanean.

COMPARTIR

Por su propia naturaleza, el ámbito cultural exige una visión transversal y un permanente esfuerzo de coordinación y de trabajo en común con otras instancias institucionales y con los propios agentes de la creación y la producción cultural. En épocas de crisis como la que vivimos se hace más patente la urgencia en aunar estrategias y compartir proyectos.

La Dirección de Promoción de la Cultura seguirá profundizando en políticas conjuntas con los sectores profesionales y colectivos culturales, a través del diálogo y la coordinación permanentes.

El plan Kultura Auzolanean nos viene ofreciendo el entorno necesario para la coordinación, comunicación y participación con las instancias institucionales con las que compartimos la responsabilidad de las políticas culturales, tanto diputaciones forales como ayuntamientos. Este marco de actuación engloba también las relaciones transversales y sectoriales con los agentes de la cultura. Kultura Auzolanean ha desarrollado y finalizado los 20 proyectos previstos para el periodo 2014-2015, continuando en el tiempo el tema de la financiación y la fiscalidad de la cultura, por su naturaleza transversal a todo el sistema cultural.

El plan Kultura Auzolanean 2016 analizará y desarrollará nuevos proyectos estructurantes, entre los que cabe mencionar una mayor incorporación y presencia de mujeres y obras creadas por mujeres en el ámbito cultural, para lo que se realizará un estudio conjunto entre el Observatorio Vasco de la Cultura y Emakunde, que ayude al desarrollo de criterios para una mayor presencia de la mujer y sus obras en el ámbito cultural. Estos proyectos se desarrollarán a través de sus grupos de trabajo específicos de la Comisión Interinstitucional y del renovado Consejo Vasco de la Cultura.

Gainera, sailaren barruko koordinazioa areagotzen jarraituko dugu, hots, kulturaren, hezkuntzaren eta hizkuntza-politikaren artekoa, baita gobernu honen gainerako sailekin ere, zehazkiago Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin eta Ogasun eta Finantza Sailarekin, Europar Batasunak Europa Sortzailea urte anitzeko bere programan ezarritako irizpideei jarraiki.

Azkenik, adierazi behar da partekatzeko irizpide hori ekitaldiei eta erakunde traktoreei laguntzeko politiketan ere zehazten dela, lurralde guztietako erakunde politikoekin bat etorri bultzatu eta kudeatutakoetan.

AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEA

Hiru dira ideia honekin lotutako funtsezko alderdiak: genero-berdintasuna, euskarazko sorkuntzari eta ekoizpenari laguntzeko diskriminazio positiboko politikak eta kultura-ohituren sustapena, sektore behartsuenak espezifikoki azpimarratuz.

Genero-berdintasunari dagokionez, kultura-ekoizpenerako deialdietan emakumezko sortzaileak gehitzea bultzatzeko balorazio-irizpideak sortuko dira, baita ere genero-berdintasuna ikusarazten duten lanen kasurako. Horrez gain, Kultura Auzolanean planaren lan-esparruan emakumeek eremu kulturean duten agerikotasuna indartzeko proiektua jarriko da martxan.

Euskarazko kulturaren sorkuntzari, ekoizpenari, banaketari eta erakusketari eta euskararen erreferentziazko erakundeak eman beharreko laguntza indartzen jarraituko dugu.

Horrenbestez, gure herrialdearen kultura-panoramaren funtsezko elementu gisa ikusten dira, ez kultura-sorkuntzatik bereizitako alor gisa, baizik eta euskal kulturaren osagai egituratzaile gisa, eta kultura horren barruan euskal hizkuntza gure sormenaren eta munduan dugun gure berezitasunaren funtsezko osagai bat izango da, emakumeen parte-hartzea indartzea eta parte-hartze hori ageriko egitea betebeharr demokratiko bat eta sorkuntzaren bizitasunaren eta kulturaren parte-hartzearen aldeko apustu bat izango delarik.

Kultura-ohiturak komunikazioaren bidez bideratuko dira, komunikabide publikoekin (EITB) izan beharreko lankidetzan eta konplizitatean sakonduz, kultura-kontsumorako laguntza ekonomikoko neurrien bidez, eta herritarren irisgarritasunaren ideia, batez ere irisgarritasun digitalarena, sendotuz Zuzendaritza honen lan-alor guztietan. Irisgarritasun digitala Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Kultura Ondareko Zuzendaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzera garamatza, Euskadiren kultura-sorkuntzaren ondare bizia herritarren eskuetan jartze aldera.

Hiru irizpide horiek jardun-gidalerro gisa hartuta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak honako jardun-ildo hauek proposatzen ditu 2016an: EUSKAL SORKUNTZA SAREA SENDOTZEA, EKITALDI ETA ERAKUNDE TRAKTOREEN MAPA INDARTZEA, KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA.

Además continuaremos intensificando la coordinación interna del Departamento, entre cultura, educación y política lingüística, así como con los demás departamentos de este Gobierno, y específicamente con el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad y con Hacienda y Finanzas, siguiendo los criterios marcados por la Unión Europea en su programa plurianual Europa Creativa.

Por fin, señalar que el criterio de compartir se concreta también en las políticas de apoyo a los eventos e instituciones tractoras, impulsadas y gestionadas en consonancia con las instituciones políticas de los diversos territorios.

FOMENTAR LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES

Tres son los aspectos claves vinculados a esta idea: la igualdad de género, las políticas de discriminación positiva para el apoyo a la creación y producción en euskera y el fomento de hábitos culturales, incidiendo específicamente en los sectores más desfavorecidos.

En cuanto a la igualdad de género, cabe destacar la inclusión en las convocatorias de producción cultural de criterios de valoración para impulsar la incorporación de las creadoras, y de obras que visibilicen la igualdad de género. Además, se pondrá en marcha un proyecto para reforzar la presencia de la mujer en el ámbito de la Cultura, dentro del marco del plan Kultura Auzolanean.

Seguiremos reforzando el apoyo a la creación, producción, distribución y exhibición de la cultura en euskera, así como a sus instancias referenciales.

Se contemplan, por tanto, como elementos clave en el panorama cultural de nuestro país, no como ámbitos separados y específicos de la creación cultural, sino como componentes estructurantes de la cultura vasca, en la que la lengua vasca es un componente fundamental de nuestra creatividad y nuestra particularidad en el mundo, y en el que reforzar y dar visibilidad a la participación de las mujeres es un deber democrático y una apuesta por la vitalidad de la creación y la participación en la cultura.

El fomento de los hábitos culturales se vehiculará a través de la comunicación, profundizando en la colaboración y complicidad con los medios de comunicación públicos (EITB), a través de medidas de apoyo económico al consumo cultural, y reforzando la idea de accesibilidad, y en especial la accesibilidad digital, de la ciudadanía en todos los ámbitos de trabajo de esta Dirección. La accesibilidad digital nos lleva, además, a intensificar la coordinación y la colaboración entre las Direcciones de Promoción de la Cultura y de Patrimonio Cultural, en aras a poner en manos de la ciudadanía el patrimonio vivo de la creación cultural de Euskadi.

Con estos tres criterios como guía de actuación, la Dirección de Promoción de la Cultura propone las siguientes líneas de actuación en 2016: FORTALECER EL TEJIDO CREATIVO VASCO, REFORZAR EL MAPA DE EVENTOS E INSTITUCIONES TRACTORAS, IMPULSAR LAS INDUSTRIAS CULTURALES.

EUSKAL SORKUNTZA SAREA SENDOTZEA

Sortze-praktikak eta sorkuntza-prozesuak oinarri dira kultura-jarduera guztia garatzeko, eta, horrenbestez, tratamendu espezifiko behar dute gobernuaren kultura-politiketan. Funtsezkoa da testuinguru egoki bat ahalbidetzea pertsona sortzaileen masa kritikoa hazi dadin, etengabeko kalitate-eskakizuna aldi berean ezartzen duen testuinguru bat ahalbidetzea, hain zuzen ere. Horrela baino ez da ziurtatutako kultura-testuinguru berriak etengabe sortzea, benetako garapen pertsonal eta kolektiboaren bultzatzaile izango direnak, eta ekoizpenaren aurreko urratsetan sortzaileen lanak laguntzeko neurriak sustatuz bakarrik lortuko dugu gure kultura ekoizpenaren kalitate eta berrikuntzan eragitea.

Helburu horiek lortzeko asmoz, sorkuntzaren aldeko apustua egingo da eman beharreko laguntza indartuz, bai gure herrialdeko sortzaileei lagundu eta zerbitzua ematen dieten talentua sustatzeko egiturei, bai sorkuntzari lotutako diziplinak egituratzen dituzten elkarte profesionalei.

2016tik aurrera, kultura-sorkuntzaren egungo deialdiak zentralitate eta zeharkakotasun handiagoa izango du. Deialdiaren aurrekontua handitu egingo da eta sektore berrietara zabalduko da kultura sorkuntzaren egungo deialdia; hala, zine-gidoien idazketan, antzerki testuen gidoietan, musika konposizioan, narratiban eta kultura produktuen aurretiazko diseinuak ikertu eta sortzeko proposamenetan ere lagunduko zaio talentuari eta sorkuntzari.

Sorkuntza-lantegien deialdiari esker, gune independenteen sare informala gorpuztu da EAEn, sortzaileei zerbitzuak eta azpiegiturak eskaintzen dizkieten sorguneen sarea, hain zuzen ere, euren inguruko gizartearekin zein beste sektoreetako sortzaileekin harremanak erraztu dituen. Gogoeta sakon eta partekatua ondoen, deialdi hau indartu eta garrantzi handiagoa emateko asmoz bere lan-ildoak egokitu egingo dira. Aipatutako doikuntzekin mantenduko dugu egungo deialdia, modalitate bakar batekin, sare hau finkatu eta egonkortzeko asmoz.

Horrezaz gain berrikuntza soziala eta bitartekaritzarako deialdi berria jarriko da martxan. Deialdi honek gure sormen-inguruneetarako etekin handiena ateratzea du helburu, eta horretarako ikerketari, berrikuntzari eta arte-garaikidetasunari lotutako proiektuei lagunduko zaie, bitartekaritzan eta sare-lanean oinarrituak.

Laguntza-programa hau koordinatu eta zabaltzeko asmoz (kultura-sorkuntza, sormen-lantegiak eta bitartekaritza eta berrikuntza soziala) laguntza teknikoko zerbitzua jarriko da martxan, egitarauan parte hartzen duten egitura zein agenteei zuzendua, hartara lan-ildo honi pisu eta koherentzia gehiago emango zaiola.

EKITALDI ETA ERAKUNDE TRAKTOREEN MAPA INDARTZEA

FORTALECER EL TEJIDO INDUSTRIAL VASCO

Las prácticas creativas y los procesos de creación son la base para el desarrollo de toda actividad cultural, y por lo tanto, requieren un tratamiento específico en las políticas culturales del gobierno. Es fundamental posibilitar un contexto adecuado para el incremento de la masa crítica de personas creadoras, un contexto que al mismo tiempo establezca una permanente exigencia de calidad. Sólo así se asegurará la generación permanente de nuevos contextos culturales, favorecedores de un verdadero desarrollo personal y colectivo, y sólo con medidas que apoyen el trabajo de los creadores en las fases previas a la producción, podremos incidir en la innovación y en la calidad de nuestra producción cultural.

Para la consecución de estos objetivos, se reforzará la apuesta por la creación, intensificando el apoyo a las estructuras de promoción del talento que acompañen y den servicio a los diferentes creadores y creadoras de nuestro país, así como a las asociaciones profesionales que articulan cada una de las disciplinas ligadas a la creación.

La actual convocatoria de creación cultural tendrá una mayor centralidad y transversalidad a partir del 2016. Se incrementará su dotación presupuestaria y se abrirá la actual convocatoria de creación cultural a más sectores, de manera que se apoyará el talento y la creación en la escritura de guiones, textos teatrales, composición musical, narrativa, y en propuestas de creación e investigación para diseños preliminares de productos culturales.

Gracias a la convocatoria de Fábricas de Creación se ha ido constituyendo en la CAV una red informal de espacios independientes, centros de creación que ofrecen servicios e infraestructuras a los creadores, facilitando la relación con su entorno social y con creadores de otras disciplinas creativas. Tras una reflexión profunda y compartida, se realizarán cambios para dar a cada una de las líneas de trabajo de esta convocatoria programa para consolidarlas y darles mayor peso. La convocatoria existente se mantiene con los ajustes mencionados, con una sola modalidad, para apoyar, consolidar y dar una mayor estabilidad a esta red.

Además, se pondrá en marcha una nueva convocatoria para impulsar proyectos de mediación e innovación social. A través de esta convocatoria se apoyarán a proyectos comprometidos con la investigación, la innovación y la contemporaneidad artística que desde la mediación y el trabajo en red busquen desarrollar al máximo el potencial creativo de nuestro entorno.

Para coordinar y divulgar este programa de ayudas (creación cultural, fábricas de creación y mediación e innovación social) se pondrá en marcha un acompañamiento técnico que se ofrecerá a las estructuras y agentes que participan en el programa, otorgando así un mayor peso y coherencia a esta línea de trabajo.

REFORZAR EL MAPA DE EVENTOS E INSTITUCIONES TRACTORAS

Ekitaldi eta erakunde traktoreak atxikiko ditugu, hau da, gizartean oso errotuta daudelako, sektorearen barruan jarduera traktoreak izateagatik balio handia dutelako eta nazioartean proiektzio handia dutelako kulturaren ez ezik, merkataritzan, turismoan eta enpleguan ere eragina duten erakunde eta ekitaldiak. Gure hiriek eta gure herrialdeak duten irudia definitzen duten erakunde, toki eta ekitaldiak dira.

2016an Donostia Europako Kultur Hiriburua izango da, eta Tabakalera errealitate bihurtuko da, haren eraikuntza eta proiektuak abian izanik. Donostia 2016 Fundazioa eta KGNG Tabakalera nazioarte mailako bi erreferente handi izango dira. Legegintzaldi honetako bi erronka handienak izan dira bi horiek, aurrekontuen zatirik handiena bereganatu dituztenak. Aurten erabakigarria izango da bi proiektu horiek kultura-sektorearen alde izango duten eragina eta ekarpena, gure ingurunearen sormen ahalmena erakutsi eta dinamizatzeko orduan. Era berean, euskal kultura-ehunean parte-hartze handiagoa izateko eskatuko zaie erakunde traktoreei, Donostia 2016 eta Tabakalerari ez ezik, Zinemaldiari eta Guggenheimi ere, New York-eko Solomon R. Guggenheim Fundazioarekin dagoen hitzarmena luzatu ondoren.

Euskadiko Filmategiak bere beharrei erantzuteko moduko egoitza izango du azkenez, hiritarrei harrera egin, programatu eta zine-artxiboak gordetzeko, dena eraikuntza berean.

Gure herriko beste kultura-azpiegitura handienetako bat ere aro berri batean sartu da: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, indartze eta nazioartekotzean oinarrituta.

KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA

Gure herrialdeko kultura-industriei laguntzearen aldeko apustua egin du Gobernu honek, kulturaren ekoizpen propioarekiko konpromisoagatik eta Bruselatik datozen politiketikiko koherentziagatik ("Creative Europe 2014-2020" Plan Estrategikoa). Aurten, foku bat zabaldu nahi dugu, industria sortzaileak ere bere baitan biltzen dituen politika bat egiteko, ZTBParent (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana) bidez.

Mantendremos los eventos e instituciones tractoras, es decir, las infraestructuras, instituciones y eventos que por su arraigo social, su valor como actividades tractoras dentro del sector, y su proyección internacional, inciden no sólo en la cultura sino en el comercio, el turismo y el empleo. Son instituciones, lugares y eventos definitorios de la imagen de nuestras ciudades y de nuestro país.

En el 2016, Donostia-San Sebastián será Capital Europea de la Cultura, y Tabakalera será ya una realidad, con el edificio y los proyectos que albergan en funcionamiento. La Fundación Donostia 2016 y el CICC Tabakalera supondrán dos grandes referentes a nivel internacional. Ambos proyectos han sido las dos grandes apuestas de la legislatura, centralizando gran parte del esfuerzo presupuestario. Este año, la aportación y el impacto de estos dos proyectos en favor del sector cultural será definitivo, dinamizando y visibilizando el potencial creativo de nuestro entorno. Asimismo, se buscará una mayor implicación de las instituciones tractoras con el tejido cultural vasco, no solo en el caso de Donostia 2016 y Tabakalera, también en el caso del Zinemaldia, y del Guggenheim, tras firmar la prolongación del convenio con la Fundación Solomon R. Guggenheim de Nueva York.

Filmoteca Vasca tendrá por fin una sede acorde a sus necesidades, con la posibilidad de atender a la ciudadanía, programar, y conservar los archivos fílmicos en un solo edificio.

Otra institución cultural nacional que entra en un nuevo periodo, marcado por el fortalecimiento y la internacionalización, es la Orquesta Sinfónica de Euskadi, una de las mayores infraestructuras culturales de nuestro país.

IMPULSAR LAS INDUSTRIAS CULTURALES

Este Gobierno apuesta por el apoyo a las industrias culturales de nuestro país, por compromiso con la producción propia de la cultura y por coherencia con las políticas emanadas desde Bruselas (Plan Estratégico "Creative Europe 2014-2020"). Este año, pretendemos abrir foco para una política que abarque también, a través de la PCTI (Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación), a las industrias creativas.

Argi dago literatura-, zinema-, antzerki- edo musika-arloko ekoizpen propioen garrantzia eta premia, eta horretarako kultura-industrien aldeko apustu irmoa egin behar da, eta enpresa-sare sendoa indartu kulturaren alorrean. Industria horiek, haatik, hauskortasun handiko unea bizi dute, zenbait faktoreren uztartzeak eragindakoa: krisialdi ekonomikoa, finantzaketa publiko zein pribatuaren murrizketa handia eragin duena, negozio-ereduen errotiko eraldaketa, mundu digitalaren sarreraren eta mundualizazioaren ondoriozkoa, eta kultura-ohituretan eta kultura-kontsumoan izandako aldaketa. Eraldaketa- eta krisi-egoera hori larriki ari da zailtzen kultura-industrien garapena; dena den, lehendik ere ahulezia-egoeran zeuden industria horiek, beren industria-sendotasun eskasaren ondorioz. Politika publikoei laguntzarik ez emateak kolapso handia eragin dezake sektore horretan, eta, horrenbestez, kultura-produktu propioen sorkuntzan, banaketan eta sozializazioan.

Hori dela-eta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ahalegin handia egin du finantzaketa publikoa atxiki eta bere neurrien barruan indartzeko, eta ahalegin horrek jarraitu egingo du 2016. urtean, hori baita zuzendaritzaren lehentasuneko helburuetako bat, sektore guztietan ekoizpen-, zabalkunde- eta profesionalizazio-proiektuetarako deialdiak atxikita. Sektoreetako elkarte profesionalekin baterako lana egitearen aldeko apustua egiten jarraituko dugu, goian adierazitako irizpideei jarraiki, hots, sektorea antolatzea, kultura-politikak partekatzea eta publiko berrien sorrera bultzatzea, gizarte osoak kulturaren produktuetarako izango duen irisgarritasuna indartuta.

Baina ez da nahikoa Sailburuordetzatik datozen ohiko ekintza-ildoekin. Kulturaren enpresa-sarea bultzatzeko beharrezkoa da, eta hori eskatzen dute Bruselatik, koordinazio-bide berriak ezartzea, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin zein Ogasun eta Finantza Sailarekin.

Horrela baino ez dugu lortuko nazioartekotzearen erronka handiari erantzutea, sektoreari laguntza eskainiz koprodukzioko, banaketako eta salmentako aukera berriak bilatzeko nazioarteko merkatuetan. Kultura-eduki propioak ekoizkiko dituen industria bat bermatzea da zabaltzen dugun bidea euskal kulturak nazioarteko merkatu globaletan presentzia izan dezan. Globalizazio-prozesuan tokiko nortasuna gordetzeko berme bakarra kalitatezko kultura-ondasunen ekoizpena da, nortasun hori ingurune global horretan txertatzeko. Lan horretan, Etxepare Institutuaren laguntza izango dugu, hobeto koordinatuta eta inbrikatuta baitago Basque Country markari lotutako kanpo-harremanetarako politikean.

Es evidente la importancia y la necesidad de una producción literaria, cinematográfica, teatral o musical propias, y para ello es necesario apostar claramente por las industrias culturales, fortalecer un tejido empresarial fuerte en el terreno cultural. Estas industrias, sin embargo, viven un momento de gran fragilidad, motivada por la conjunción de varios factores: la crisis económica, de la que se deriva una fuerte reducción de la financiación pública, así como de la privada, la transformación radical de los modelos de negocio, derivada de la irrupción del mundo digital y la mundialización, y la mutación en los hábitos culturales y el consumo cultural. Esta situación de transformación y crisis está dificultando gravemente el desarrollo de las industrias culturales, que ya arrastraban una situación de debilidad, por su escasa fortaleza industrial. La falta de apoyo de las políticas públicas puede provocar un serio colapso en este sector y, por tanto, en la generación, distribución y socialización de productos culturales propios.

Por esta razón, la Dirección de Promoción de la Cultura ha hecho un serio esfuerzo por mantener la financiación pública y reforzarla en la medida de sus posibilidades, un esfuerzo que continuará en el año 2016, como uno de sus objetivos prioritarios, manteniendo las convocatorias para proyectos de producción, difusión y profesionalización en los diferentes sectores. Continuaremos apostando por el trabajo conjunto con las asociaciones profesionales sectoriales, bajo los criterios arriba indicados de ordenar el sector, compartir las políticas culturales, e impulsar la creación de nuevos públicos, reforzando la accesibilidad de toda la sociedad a los productos de la cultura.

Pero no basta con las líneas de acción habituales derivadas de la Viceconsejería. Para reforzar el tejido empresarial de la Cultura es necesario, y así lo exigen desde Bruselas, establecer nuevas vías de coordinación tanto con el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, como con el de Hacienda y Finanzas.

Sólo así podremos abordar el gran reto de la internacionalización, acompañando al sector en la búsqueda de nuevas oportunidades de coproducción, distribución y venta en mercados internacionales. Garantizar una industria que produzca contenidos culturales propios es el camino para abrirnos a la presencia de la cultura vasca en los mercados globales internacionales. En el proceso de globalización la única garantía de preservación de la identidad local es la producción de bienes culturales de calidad que la inserten en este entorno global. En esta labor, contaremos con el apoyo del Instituto Etxepare, mejor coordinado y mejor imbricado en las políticas de acción exterior vinculadas a la marca Basque Country.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. ANTOLATZEA 1. Kulturaren Euskal Behatokia (KEB).		1. ORDENAR 1. Observatorio Vasco de la Cultura (OVC).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Urteko estatistika eragiketa kop.	2	1. Núm. anual de operaciones estadísticas.
2. KEBaren adierazle sisteman urtean eguneratutako adierazle kop.	15	2. Núm. anual de indicadores actualizados en el sistema de indicadores del OVC.
3. Behatokiaren estatistika emaitzen hartzaile kop. urtean.	700	3. Núm. anual de personas receptoras de resultados estadísticos del Observatorio.
4. Urteko ikerketa eta azterketa kop.	10	4. Núm. anual de investigaciones y estudios realizados.
5. Urteko argitalpen elektroniko kop.	18	5. Núm. anual de publicaciones electrónicas.
6. Urteko jardunaldi eta lan bileren kop.	2	6. Núm. anual jornadas y encuentros de trabajo.
2. Kulturklik.		2. Kulturklik.
1. Argitaratutako eduki kop. urtean.	32.000	1. Núm. anual de contenidos publicados.
2. Gizarte sareen erabiltzaile kop. urtean.	3.500	2. Núm. anual de personas usuarias en redes sociales.
3. Urteko harpidedun kop. buletin elektronikoan.	3.700	3. Núm. anual de personas subscriptas al boletín electrónico.
4. Urteko buletin elektroniko kop.	100	4. Núm. anual de boletines electrónicos.
5. Web guneko bisita kop. urtean.	200.000	5. Núm. anual de visitas a la página web.
2. PARTEKATZEA		2. COMPARTIR
1. Kultura sektoreetako eta zeharkako lantaldeak.		1. Grupos de trabajo de cultura sectoriales y transversales.
1. Lantalde eta batzorde sektorialen lan bilera kop. urtean.	15	1. Núm. de sesiones de trabajo anual de los grupos operativos y comisiones sectoriales.
2. Zeharkako lantaldeen lan bilera kop. urtean.	5	2. Núm. de sesiones de trabajo de los grupos operativos transversales.
3. Kultura dinamizaziorako Idazkaritza Teknikoaren bidez kudeatutako proiektu kop. urtean.	6	3. Núm. anual de proyectos gestionados desde Secretaría de Dinamización Cultural del País Vasco.
2. Erakundeen arteko koordinazioa.		2. Coordinación Interinstitucional.
1. Erakundearteko Taldearen lan bilera kop. urtean.	4	1. Núm. de sesiones de trabajo anual del Grupo Interinstitucional.
2. Kulturaren Euskal Kontseiluaren osoko bilera kop. urtean.	2	2. Núm. de sesiones plenarias anual del Consejo Vasco de la Cultura.
3. Pentsamendu politiko, soziala eta kulturala aztertu eta garatzeko egitarauak.		3. Programas de estudio y desarrollo del pensamiento político, social y cultural.
1. Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteei emandako diru-laguntza kop. urtean.	4	1. Núm. anual de subvenciones concedidas a fundaciones y asociaciones vinculadas a partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Egindako ekintza kop. urtean.	40	2. Núm. anual de actividades realizadas.
3. AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEA		3. FOMENTAR LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES
1. Genero berdintasuna sustatzea.		1. Fomento de la igualdad de género.
1. Emandako Euskadi literatura sarietan emakumezko saridun kop. urtean.	2	1. Núm. anual de premios literarios Euskadi concedidos a mujeres.
2. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako emakumezko hautagai kop. urtean.	20	2. Núm. anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios literarios Euskadi.
3. Emandako Gure Artea sarietan, emakumezko saridun kop. urtean.	1	3. Núm. anual de premios Gure Artea concedidos a mujeres.
4. Aurkeztutako Gure Artea sarietarako emakumezko hautagai kop. urtean.	4	4. Núm. anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios Gure Artea.
5. Balorazio Batzordeetan parte hartutako emakumezko kop. urtean.	25	5. Núm. anual de mujeres participantes en comisiones de valoración.
2. Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea.		2. Fomento de la presencia y uso del euskera.
1. Lagundutako euskaraz egindako paperezko argitalpen proiektu kop. urtean.	300	1. Núm. anual de proyectos de edición de libros en papel en euskera apoyados.
2. Lagundutako euskaraz egindako argitalpen digitalen proiektu kop. urtean.	100	2. Núm. anual de proyectos de edición de libros digitales en euskera apoyados.
3. Euskara balorazio irizpide deneko diru-laguntza deialdi kop. urtean.	10	3. Núm. anual de convocatorias de subvenciones en los que el uso del euskera es un criterio de valoración.
4. Sexua aldagai gisa txertatzen deneko estatistika eragiketa kop. urtean.	1	4. Núm. anual de operaciones estadísticas en las que se incluye la variable sexo.
3. Kultura ohiturak sustatzea.		3. Fomento de hábitos culturales.
1. Kultura ohiturak eta eskuragarritasun digitala sustatzeko lagundutako proiektu kop. urtean.	5	1. Núm. anual de proyectos apoyados para fomentar los hábitos culturales y la accesibilidad digital.
2. Kultura ohiturak sustatzeko lagundutako kanpaina kop. urtean.	1	2. Número de campañas de promoción apoyadas para el fomento de hábitos culturales.
3. EAEn lagundutako liburu azoka kop. urtean.	18	3. Núm. anual de proyectos de ferias del libro apoyados en la CAE.
4. Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kop. urtean.	134	4. Núm. anual de contratos de espectáculos escénicos de calle apoyados.
5. Lagundutako dantza emanaldi kop. urtean.	68	5. Núm. anual de representaciones de danza apoyadas.
6. Lagundutako musika kontzertu kop. urtean.	60	6. Núm. anual de conciertos de música apoyados.
7. Ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kop. urtean.	25	7. Núm. anual de proyectos de difusión de artes visuales apoyados.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
8. Lagundutako nazio eta nazioarteko jaialdi kop. urtean.	50	8. Núm. anual de festivales de carácter nacional e internacional apoyados.
4. EUSKAL SORKUNTZA SAREA SENDOTZEA		4. FORTALECER EL TEJIDO CREATIVO VASCO
1. Sormen lantegiak ezartzea eta horien funtzionamenduari laguntzea.		1. Apoyo a la implantación y funcionamiento de Fábricas de Creación.
1. Lagundutako sorkuntza gunekop. urtean.	10	1. Núm. anual de centros de creación apoyados.
2. Lagundutako sorkuntza ikerketa proiektu kop. urtean.	13	2. Núm. anual de proyectos de investigación creativa apoyados.
3. Lagundutako kultura proiektu berritzaile kop. urtean.	17	3. Núm. anual de productos culturales innovadores apoyados.
2. Sektoreen sorkuntzarako laguntza espezifikoak.		2. Ayudas específicas para creación sectorial.
1. Egindako koreografi pieza kop. urtean.	9	1. Núm. anual de piezas coreográficas realizadas.
2. Egindako musika sorkuntza kop. urtean.	14	2. Núm. anual de composiciones musicales realizadas.
3. Sortutako gidoi zinematografiko kop. urtean.	10	3. Núm. anual de guiones cinematográficos creados.
4. Sortutako antzerki testu berri kop. urtean.	8	4. Núm. anual de nuevos textos teatrales generados.
5. Arte plastiko eta ikusizkoetan sorkuntza eta ekoizpenerako lagundutako proiektu kop. urtean.	36	5. Núm. anual de proyectos de creación y producción de artes plásticas y visuales apoyados.
6. Literaturan diruz lagundutako proiektu kop. urtean.	8	6. Núm. anual de proyectos de literatura apoyados.
3. Arte eszeniko arloko prestakuntzarako laguntza espezifikoak.		3. Ayudas específicas a la formación en las artes escénicas.
1. Antzerkirako prestakuntza integrala helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean.	75	1. Núm. anual de participantes en los cursos de formación integral en el área teatral.
2. Antzerkirako prestakuntza berezitua helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean.	30	2. Núm. anual de participantes en los cursos específicos del área teatral.
3. Dantzako profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kop. urtean.	12	3. Núm. anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales de la danza.
4. Euskadi literatura sariak.		4. Premios literarios Euskadi.
1. Emandako Euskadi literatura sari kop. urtean.	7	1. Núm. anual de premios literarios Euskadi concedidos.
2. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako hautagai kop. urtean.	80	2. Núm. anual de candidaturas presentadas a los premios literarios Euskadi.
5. Gure Arte sariak.		5. Premios Gure Arte.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. Emandako Gure Artea sari kop. urtean.</p> <p>2. Aurkeztutako Gure Artea sarietarako hautagai kop. urtean.</p> <p>3. Euskadiko prentsan saridunen eta beren arte lanen aipamen kop. urtean.</p> <p>4. Gure Artea sari emate ekitaldian bertarutako kop. urtean.</p>	<p>3</p> <p>15</p> <p>8</p> <p>100</p>	<p>1. Núm. anual de premios Gure Artea concedidos.</p> <p>2. Núm. anual de candidaturas presentadas a los premios Gure Artea.</p> <p>3. Núm. anual de inclusiones en la prensa del País Vasco de galardonados/as y su obra.</p> <p>4. Núm. anual de asistentes al acto de entrega de los premios Gure Artea.</p>
<p>5. EKITALDI ETA ERAKUNDE TRAKTOREEN MAPA INDARTZEA</p>		<p>5. REFORZAR EL MAPA DE EVENTOS E INSTITUCIONES TRACTORAS</p>
<p>1. Lagundutako azpiegitura kop. urtean.</p> <p>2. Lagundutako ekitaldi traktore kop. urtean.</p> <p>3. Lagundutako erakunde traktore kop. urtean.</p> <p>4. Diru-laguntza izendun bidez kultura programak gauzatzeko lagundutako EAEko udal kop. urtean.</p> <p>5. Diru-laguntza izendun bidez (ELKARTE Plana) lagundutako kultura sektoreetako elkarte kop. urtean.</p>	<p>1</p> <p>8</p> <p>5</p> <p>6</p> <p>18</p>	<p>1. Núm. anual de infraestructuras tractoras apoyadas.</p> <p>2. Núm. anual de eventos tractores apoyados.</p> <p>3. Núm. anual de instituciones tractoras apoyadas.</p> <p>4. Núm. anual de ayuntamientos de la CAE apoyados para sus programas culturales mediante subvenciones nominativas.</p> <p>5. Núm. anual de asociaciones sectoriales (Plan ELKARTE) de la cultura apoyadas mediante subvenciones nominativas.</p>
<p>6. KULTURA INDUSTRIAK BULTZATZEA</p>		<p>6. IMPULSAR LAS INDUSTRIAS CULTURALES</p>
<p>1. Kultura ekoizpena dinamizatzea.</p> <p>1. Lagundutako musika proiektu kop. urtean.</p> <p>2. Lagundutako dantza proiektu kop. urtean.</p> <p>3. Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kop. urtean.</p> <p>4. Lagundutako paperezko argitalpen proiektu kop. urtean.</p> <p>5. Lagundutako argitalpen digitalen proiektu kop. urtean.</p> <p>6. Sortutako antzerki ekoizpen berri kop. urtean.</p> <p>7. Antzerki konpainien egoitza programa kop. urtean, antzoki publikoetan.</p>	<p>56</p> <p>12</p> <p>22</p> <p>200</p> <p>75</p> <p>16</p> <p>3</p>	<p>1. Dinamización de la producción cultural.</p> <p>1. Núm. anual de proyectos musicales apoyados.</p> <p>2. Núm. anual de proyectos de danza apoyados.</p> <p>3. Núm. anual de proyectos de audiovisual apoyados.</p> <p>4. Núm. anual de proyectos de edición de libros en papel apoyados.</p> <p>5. Núm. anual de proyectos de edición de libros digitales apoyados.</p> <p>6. Núm. anual de nuevas producciones teatrales generadas.</p> <p>7. Núm. anual de proyectos de residencia de compañías teatrales en teatros públicos.</p>
<p>2. Sailak bultzatutako sektoreetako programak.</p> <p>1. Euskal Antzoki SAREAKo gomendatutako obren katalogoan sartutako ikuskizun kop. urtean.</p>	<p>80</p>	<p>2. Programas sectoriales impulsados por el Departamento.</p> <p>1. Núm. anual de espectáculos incluidos en el catálogo de obras recomendadas de la Red Vasca de Teatros SAREA.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Euskal Antzoki SAREaren Idazkaritza Teknikoa jaso duten antzoki kop. urtean.	50	2. Núm. anual de teatros usuarios del servicio de la Secretaría Técnica de la Red Vasca de Teatros SAREA.
3. Euskal musikaren ekoizpena eta zabalkundea sustatzeko EUSKADIKO SOINUAK programaren bidez bultzatutako jarduera kop. urtean.	12	3. Núm. anual de acciones impulsadas a través del programa EUSKADIKO SOINUAK, de apoyo a la producción y difusión de la música vasca.
4. Arte garaikidea bultzatzeko EREMUAK programaren testuinguruan sustatutako ekintzak kop. urtean.	12	4. Núm. anual de acciones apoyadas en el contexto del Programa EREMUAK para la promoción del arte contemporáneo.
5. Euskal eta euskarazko zinea sustatzeko ZINEUSKADI programaren barruan lagundutako proiektu kop. urtean.	48	5. Núm. anual de proyectos apoyados en el Programa ZINEUSKADI para la promoción y fomento del cine vasco y en euskera.
3. Bestelako kultura elkarte eta entitateak bultzatzea.		3. Apoyo a otras asociaciones y entidades culturales.
1. Diru-laguntza izendunen bitartez lagundutako kultura talde eta entitate kop. urtean.	13	1. Núm. anual de colectivos y entidades de la cultura apoyadas mediante subvenciones nominativas.
4. Europar Batasunarekin (EB) koordinatutako proiektuak.		4. Coordinación de proyectos con la Unión Europea (UE).
1. Koordinatutako proiektu kop. urtean.	10	1. Núm. anual de proyectos coordinados.
5. Etxepare Euskal Institutuarekin euskal kulturaren kanpoko zabalkunderako lankidetzak.		5. Colaboración con el Instituto Vasco Etxepare en acciones de difusión exterior de la cultura vasca.
1. Egindako lankidetzak ekintza kop. urtean.	10	1. Núm. anual de acciones de colaboración.
6. Pirinioetako Lan Elkartea.		6. Comunidad de trabajo de los Pirineos.
1. Pirinioetako Lan Elkartearen bidez lagundutako proiektu kop. urtean.	1	1. Núm. anual de proyectos apoyados a través de la Comunidad de trabajo de los Pirineos.

PROGRAMA	PROGRAMA
4514 ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA	4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>06 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA</u>	<u>06 EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA</u>
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL

MEMORIA

Kultura Ondarearen Zuzendaritza bost zerbitzutan banatzen da: Kultura Ondarearen Zentroa, Museoen Zentroa, Euskadiko Artxibo Historikoa eta Liburutegi Zerbitzua eta, azkenik, Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa.

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ZUZENDARIA	DIRECTOR DE ATENCIÓN DE EMERGENCIAS

MEMORIA

Eusko Jaurlaritzak eta Segurtasun Sailak segurtasun-arloan dituzten politiken xedea da herritarrak eta erakundeak babestea; hain zuzen, pertsonak, ondasunak edo ingurumena mehatxatzen dituzten arriskuen aurrean. Mehatxu eta arrisku horiek direla-eta, larrialdiei aurre egiteko beti bi arlo kontuan hartuta jardungo dugu: prebentzioa eta berehalako erantzuna. Horretarako, erakunde, zerbitzu eta sistema guztien integrazioan sakonduko dugu: arduradunak, baliabide egokiak eta sistema teknologiko aurreratuak; hau da, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren muina osatzen duen guztia.

Hauek dira helburu orokorrak:

1. Larrialdi guztiak hasieratik jasotzea, larrialdietarako 112 telefono bakarraren bitartez. Aldi berean, SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentron ondorengo kudeaketa-fasea indartu eta alderantzizko 112 sistemaren erabilerari buruz Europako Parlamentuak onartutako filosofia ezarriko da. Sistema hori eraginkorra da era guztietako larrialdi edo hondamenak daudenean herritarrak ohartarazteko. Pixkanaka lortu nahi dugu gure zentroak nagusiki abisuak ematen dituzten zentroak izatea eta ez bakarrik abisu-jasotzaile. Asmo horrekin, larrialdietako dei masiboen sistemen erabilera berrikusi eta eguneratuko dugu; batik bat arrisku kimikoari dagozkion kasuetan, "Seveso" izeneko zuzentarauen eraginpeko enpresak dituzten udalerrietan. Halaber, gure irudi-sisteman erakunde gehiago sartzen jarraituko dugu, koordinazio-zentroek entzun ez ezik, ikusizko informazioa ere izan dezaten.

Las políticas de seguridad del Gobierno Vasco y del Departamento de Seguridad tienen como objetivo proteger a los ciudadanos y ciudadanas, así como a las organizaciones e instituciones, frente a los distintos riesgos que amenazan la seguridad de personas, bienes o medio ambiente. Ante estas amenazas y riesgos actuaremos siempre desde los ámbitos tanto preventivos como de respuesta inmediata a las emergencias. Para ello profundizaremos en la integración de todas las instituciones, servicios y sistemas. Es decir, personas responsables, recursos adecuados y sistemas tecnológicos avanzados, todo lo que constituye el corazón del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.

Los objetivos genéricos son:

1. Recoger todas las emergencias desde el inicio, mediante el teléfono único para emergencias 112, reforzando así mismo la fase posterior de gestión de los centros de Coordinación de Emergencias SOS-DEIAK e implantando la filosofía aprobada por el Parlamento Europeo sobre el establecimiento de un "sistema 112 a la inversa", eficiente para alertar a los ciudadanos y ciudadanas en caso de emergencias y desastres de todo tipo graves. Avanzando en que nuestros propios centros se conviertan, cada vez más, en centros de emisión de avisos y no solo de recepción de los mismos. Para ello revisaremos y actualizaremos el uso de sistemas de llamadas masivas en casos de emergencia y en especial los correspondientes a riesgo químico en aquellos municipios con empresas afectadas por las denominadas directivas "Seveso". Así mismo seguiremos incorporando nuevas instituciones a nuestro sistema de imágenes a fin de que los Centros de Coordinación no solo tengan oídos sino que dispongan también de información visual.

2. Aurreko ildoari jarraituz, informazio-bide berriak inplementatzen jarraituko dugu gizarte-sareak eta APP aplikazioak erabiliz, komunikazio-euskarri adimendunen erabileran gizartean gertatzen ari den eboluzioarekin bat etortzeko.

3. Puntu garrantzitsua dugu babes zibilaren arloan eta larrialdien kudeaketan udalei loturiko hainbat eremutan aurreratzea: harremanak, aholkularitza, integrazioa eta laguntza, eta are garrantzitsuagoa orain, udal askotan karguak aldatu baitira. Gauza bera foru-aldundiekin, batez ere baso-suteen arloan.

4. Halaber, babes zibilaren barruan boluntarioratza sustatzeko lan egingo da.

5. Plangintzaren arloan, batik bat nabarmentzekoa da autonomia-erkidegoen ardurapeko larrialdi-planak berrikustea; baita udaletako larrialdi-planak eguneratzea eta enpresa kimikoen kanpoko larrialdi-planak berrikustea eta eguneratzea ere. Azpimarratzekoa ere bada Autobabeserako Euskal Araua deritzonaren sustapena, bereziki "teknikari eskudunaren" irudia eta prestakuntza Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin elkarlanean. Presei buruzko planak ere berrikusi eta horien gaineko txostenak egingo dira.

6. Zabalkundearen eremuan, 2016. urtean zehar larrialdi guztietarako 112 telefonoa sustatzen jarraituko dugu, era horretan 112 zenbakia jendeak buruz ikastea errazteko. Larrialdi kimikoari aurre egiteko biztanleentzako informazio-kanpaina berriak egingo dira. Horrez gain, jarraituko dugu autobabesaren zabalkundea eremu guztietan egiten. Hainbat erakunderekin lankidetzan ere arituko gara larrialdiei loturiko prestakuntza-ekintzak burutzeko.

7. Itsas salbamenduaren arloan Itsasoko Gurutze Gorriari erabilerarako utzitako itsasontziak egokitzeko plan bat egingo da, arlo horretako behar larrienei erantzuteko.

2. En la línea anterior continuaremos con la implementación de nuevas vías de información a través del uso de redes sociales, y aplicaciones APP, en consonancia con la evolución de la propia sociedad en la utilización de los soportes inteligentes de comunicación.

3. Un punto muy importante es el de avanzar en la relación, asesoramiento, integración y apoyo a los municipios en materia de protección civil y gestión de emergencias y más tras la renovación de los cargos de muchos Ayuntamientos. Otro tanto con las Diputaciones Forales especialmente en el campo de los incendios forestales.

4. Asimismo, se trabajará en la potenciación del voluntariado en el engranaje de protección civil.

5. En el ámbito de la planificación, destaca especialmente la revisión de los planes de emergencia de responsabilidad autonómica, la actualización de los planes de emergencia municipales y la revisión y actualización de los Planes de Emergencia exterior de las empresas químicas. También destaca el impulso de la denominada Norma Vasca de Autoprotección y especialmente a la figura "técnico competente" y a la formación en colaboración con la Academia de Policía y Emergencias. Los Planes de Presas también serán objeto de revisión e información.

6. En el ámbito de la difusión, durante el año 2016 proseguiremos promocionando el teléfono único 112 para todas las emergencias, con el objetivo de facilitar la memorización del número 112. Se realizarán nuevas campañas de información a la población en caso de emergencia química. Así mismo se continuará con la difusión de la autoprotección en todos los ámbitos. También se colaborará con distintas instituciones y organismos en la celebración de eventos formativos con relación a las emergencias.

7. En el área de Salvamento Marítimo se realizará un plan de adecuación de las embarcaciones cedidas en uso a Cruz Roja del Mar a fin de cubrir las necesidades más urgentes en esta área.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ZERBITZUA GARATZEA, "ALDERANTZIZKO 112 TELEFONOA" BARNE SARTUTA, SOS-DEIAK KOORDINAZIO ZENTROEN BIDEZ ETA 112 TELEFONOAREN BIDEZ.</p> <p>1. Larrialdi-deiak erantzutea, kudeatzea eta koordinatzea.</p> <p>1. SOS-Deiak 112 telefonoaren deiak jasotzeko zentroa.</p>	<p>1</p>	<p>1. DESARROLLO DEL SERVICIO DE ATENCIÓN A EMERGENCIAS, INCLUIDO EL "112 A LA INVERSA" A TRAVÉS DE LOS CENTROS DE COORDINACIÓN "SOS-DEIAK" Y DEL 112</p> <p>1. Atención, gestión y coordinación de las llamadas de emergencia.</p> <p>1. Centro receptor de llamadas 112 SOS-Deiak.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. SOS-Deiak koordinazio zentroen kopurua.	3	2. Número de centros de coordinación SOS-Deiak.
3. Aurreikusitako 112 deien kopurua.	1.100.000	3. Número de llamadas 112 previstas.
4. Aurreikusi diren ezbehar koordinatuen kopurua.	150.000	4. Número de incidentes coordinados que se prevén.
5. Aurreikuspenen arabera, abisu, alerta eta alarma meteorologikoei buruz bidaliko diren posta elektronikoen kopurua.	250.000	5. Correos electrónicos que se prevén enviar sobre avisos, alertas y alarmas meteorológicas.
6. Abisu, alerta eta alarma meteorologikoei buruzko SMSak.	1.100	6. SMS sobre avisos, alertas y alarmas meteorológicas.
7. Aurreikusten diren larrialdien kopurua; hain zuzen, esku-hartze zerbitzuaren laguntza teknikoa eta zuzendaritza dituztenena.	1.000	7. Número de emergencias con apoyo técnico y dirección por el servicio de intervención que se prevén.
8. SOS-Deiaken zuzendaritzaren menpeko 112 telefono bidezko arretarako postuen kopurua.	14	8. Número de puestos de atención telefónica 112 bajo operación directora de SOS-Deiak.
9. Koordinazio-aretoetan SOS-Deiaken zuzeneko jardunaren menpean dauden kudeaketa-postuen kopurua.	12	9. Número de puestos de gestión en las salas de coordinación bajo operación directa de SOS-Deiak.
2. GIZARTE SAREEN ERABILERA.		2. USO DE REDES SOCIALES.
1. @ 112_SOSDeiaken erabilzaileak twitterren.	13.000	1. Las personas usuarias de @ 112_SOSDeiak en twitter.
2. Informazio-twit berriak.	3.000	2. Twitts nuevos de información.
3. UDALAK ETA ALDUNDIAK LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMAREKIN ELKARLANEAN ARITZEA ETA BERTARA SARTZEA.		3. COLABORACIÓN E INTEGRACIÓN DE MUNICIPIOS Y DIPUTACIONES EN EL SADA E.
1. Hitzarmen berrien kopurua.	2	1. Número de nuevos convenios.
2. Berrikusitako edo eguneratutako udal planak.	10	2. Planes Municipales revisados o actualizados.
4. BOLUNTARIOTZAREN ALDEKO LAGUNTZA.		4. APOYO AL VOLUNTARIADO.
1. 1. Talde edo elkarrekin zerbitzu-gutun berrien kopurua.	5	1. Número de nuevas Cartas de Servicios con Agrupaciones o Asociaciones.
2. Babes zibilean laguntzen duten boluntarioen gutxi gorabeherako kopurua.	6.000	2. Número aproximado de personas voluntarias y colaboradoras de protección civil.
5. LARRIALDI PLANAK, PROTOKOLOAK ETA PROZEDURAK.		5. PLANES DE EMERGENCIA, PROTOCOLOS, Y PROCEDIMIENTOS.
1. Enpresekiko hitzarmen berriak.	1	1. Nuevos convenios con empresas.
2. Homologatutako autobabes-plan berriak.	200	2. Nuevos planes de autoprotección homologados.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3. EAEko Lurralde Planak eta Lurralde Plan Bereziak berrikustea.	1	3. Revisiones de Planes Territoriales de la CAV y Especiales.
4. Auto-babeseko Oinarrizko Araua ezartzea.	10	4. Implantación Norma Básica Autoprotección.
5. Teknikari eskudun (Aginduaren arabera) akreditatuak.	1.300	5. Técnicos competentes (según Orden) acreditados.
6. Arrisku kimikoari buruzko plan berrikusiak.	7	6. Planes de riesgo químico revisados.
7. Txostena egindako presei buruzko planak.	5	7. Planes de Presas informados.
6. ZABALKUNDE KANPAINAK GARATZEA.		6. DESARROLLO DE LAS CAMPAÑAS DIVULGATIVAS.
1. Hots-seinaleei buruzko kanpaina.	2	1. Campaña de avisos acústicos.
2. Burutu beharreko zabalkunde-jardunaldiak.	3	2. Jornadas divulgativas a realizar.
3. Mendiko segurtasuna sustatzeko kanpaina.	1	3. Campaña de promoción de la seguridad en montaña.
4. Biltzar eta jardunaldiekiko lankidetzak.	4	4. Colaboraciones con Congresos y Jornadas.
7. ITSAS SALBAMENDUA ANTOLATZEKO ETA EGOKITZEKO PLANA.		7. PLAN DE ORGANIZACIÓN Y ADECUACIÓN DEL SALVAMENTO MARÍTIMO.

PROGRAMA
4611 HAUTESKUNDEAK
ARDURADUNA
07 SEGURTASUNA
ARAUBIDE JURIDIKOAREN,ZERBITZUEN ETA
HAUTESKUNDE PROZESUEN ZUZENDARITZA

PROGRAMA
4611 PROCESOS ELECTORALES
RESPONSABLE
07 SEGURIDAD
DIRECTOR DE RÉGIMEN JURÍDICO, SERVICIOS Y
PROCESOS ELECTORALES

MEMORIA

Araubide Juridiko, Zerbitzu eta Hauteskundeetako Zuzendaritzak 2016eko ekitaldirako aurrekontu-beharrizanak biltzen ditu; hain zuzen, bere eginkizunak betetzeko, Arlo Juridiko eta Zerbitzuen arloan zein Hauteskunde-arloan egin beharreko jardueri dagozkienak.

Programa honen helburu argia da bere esku dituen giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak optimizatzea.

Hauteskunde-arloari dagokionez, funtsezko helburua hau da:

- Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak antolatu eta kudeatzea.

Ekitaldi honetarako ekintza hauek daude aurreikusita:

- Indarrean dagoen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legea bosgarren aldiz aldatzeko lege-proiektuaren izapideen jarraipena egitea.
- Estatuko eta autonomia-erkidegoko hauteskunde-araudiaren erreformaren jarraipena eta azterketa egitea.
- Alderdi politikoen ohiko funtzionamendurako gastuei aurre egiteko urteko diru-laguntza soziopolitikoak banatzea.

La Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales agrupa las necesidades presupuestarias para el ejercicio 2016 de las diversas y necesarias actividades a realizar, en el ejercicio de sus funciones, tanto en el área de Régimen Jurídico y Servicios como en la de Procesos Electorales.

Este programa tiene como objetivo claro la optimización de los recursos humanos, materiales y económicos de los que dispone.

En lo que al ámbito electoral se refiere, el objetivo fundamental es:

- Organizar y gestionar las próximas elecciones al Parlamento Vasco.

Para este ejercicio se prevén las siguientes acciones:

- Seguimiento de la tramitación en el Parlamento Vasco del Proyecto de Ley de 5ª modificación de la vigente Ley de Elecciones al Parlamento Vasco.
- Seguimiento y análisis de la reforma de la normativa electoral Estatal y Autonómica.
- Reparto de subvenciones sociopolíticas de carácter anual para gastos de funcionamiento ordinario de los partidos políticos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>1.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HURRENGO HAUTESKUNDEAK ANTOLATU ETA KUDEATZEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hauteskunde-prozesu hori, indarrean dagoen Hauteskunde Legearen arabera burutu dadin, beharrezkoak diren ekintza tekniko, juridiko eta administratiboak planifikatzea eta gauzatzea. • Hauteskunde horiek behar bezala gauzatzeko aurrekontu-aurreikuspena finkatzea. • Hauteskunde-administrazioko kideentzako, bere zerbitzuko langileentzako eta hauteskunde-mahaiko kideentzako bidesari eta ordainsarien proposamena lantzea Eusko Jaurlaritzari aurkezteko, onar dadin. • Hauteskundeetako gauean zehar, hauteskunde autonomikoen behin behineko emaitzen zabalkunde publikoa antolatzea, horretarako informazio eta komunikazioen teknologia berriak erabiliz. • Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskunderi begira, hauteskunde-gastua kudeatzeko sistema automatizatu berria (Hautesgune sistema) hauteskunde-administrazioan eta udaletan inplementatzea. <p>2. INDARREAN DAGOEN EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE-PROIEKTUAREN EUSKO LEGEBILTZARREKO IZAPIDEEN JARRAIPENA EGITEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Legebiltzarreko Batzordearen eta lantaldearen irizpenaren eta txostenaren jarraipena eta azterketa egitea, eta proiektu hori eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko Osoko Bilkura garatzea. • Indarrean dagoen hauteskunde-legedia garatzeko erregelamendu-arauei buruzko proiektuak lantzen. <p>3. ESTATUAREN HAUTESKUNDE ARLOKO ARAUGINTZAREN JARRAIPENA EGITEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Estatuko hauteskunde-araudiaren erreformari buruz behar diren ekintzak aztertzea eta burutzea, Euskal Autonomia Erkidegoko legedia eta eskumenak defendatzeko alegazioak eta beste jarduera batzuk barne sartuta. • Hauteskunde-legedi autonomikoaren erreformen jarraipen berezia egitea. 		<p>1.- ORGANIZAR Y GESTIONAR LAS PRÓXIMAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planificación y ejecución de todas las acciones técnicas, jurídicas y administrativas necesarias para que el citado proceso electoral se lleve a cabo según lo previsto en la vigente Ley Electoral. • Fijar la previsión presupuestaria para la correcta ejecución de las mencionadas elecciones. • Elaborar la propuesta al Gobierno Vasco para su aprobación de las dietas y gratificaciones de los miembros de la Administración Electoral, así como del personal a su servicio y de los componentes de las Mesas Electorales. • Organizar a lo largo de la noche de las elecciones la difusión pública de los resultados provisionales de los comicios autonómicos mediante el empleo de las nuevas tecnologías de la información y comunicaciones. • Implementar en Ayuntamientos y en la Administración electoral la puesta a punto del nuevo sistema de gestión automatizado del gasto electoral para las próximas elecciones del Parlamento Vasco (Sistema Hautesgune). <p>2. SEGUIMIENTO DE LA TRAMITACIÓN EN EL PARLAMENTO VASCO DEL PROYECTO DE LEY DE 5ª MODIFICACIÓN DE LA VIGENTE LEY DE ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Seguimiento y análisis del informe y del dictamen de la Ponencia y de la Comisión Parlamentarias, así como del desarrollo del Pleno para el debate y en su caso aprobación del mencionado Proyecto. • Elaboración de los Proyectos de normas reglamentarias de desarrollo de la vigente legislación electoral. <p>3. SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD NORMATIVA DEL ESTADO EN MATERIA ELECTORAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Analizar y realizar las acciones correspondientes en relación a la reforma de la normativa electoral estatal, incluyendo la formulación de alegaciones y otras actuaciones para la defensa de la legalidad y de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco. • Especial seguimiento de las reformas de la legislación electoral autonómica.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>4. ALDERDI POLITIKOEN OHIKO FUNTZIONAMENDURAKO GASTUEI AURRE EGITEKO URTEKO DIRU-LAGUNTZA SOZIOPOLITIKOAK BANATZEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hurrengo hauteskunde autonomikoen aurretik, diru-laguntza horiek banatzeko lehenengo proposamena egitea. • Hauteskundeetako datu-base administratiboen aplikazioa hobetzeko eta eguneratzeko proiektua ezartzea. 		<p>4. REPARTO DE SUBVENCIONES SOCIOPOLÍTICAS DE CARÁCTER ANUAL PARA GASTOS DE FUNCIONAMIENTO ORDINARIO DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Primera propuesta de reparto de dichas subvenciones antes de la celebración de las próximas Elecciones Autonómicas. • Segunda propuesta de reparto de dichas subvenciones después de la celebración de las próximas Elecciones Autonómicas.

PROGRAMA
5512 METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIA

ARDURADUNA

07 SEGURTASUNA

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA
METEOROLOGIAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA
5512 METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA

RESPONSABLE

07 SEGURIDAD

DIRECTOR DE EMERGENCIAS Y METEOROLOGÍA

MEMORIA

Aurten ez dago alde handirik orain arte egiten ari zen lanarekiko. Arlo honen garapenean dagoen alderdirik nabarmenena berriro izango da muturreko meteorologiarekin eta haren iragarpen eta jarraipenarekin loturiko lanetan sakontzea, oinarrizko helburutzat hartuta autobabesa eta ahalik eta kalte gutxien izatea. Ez ditugu ahaztuta meteorologiaren gainerako eremuak, zeren zientzia hau nagusiki horizontala baita eta, gai antropologikoekiko lotura izateaz gain, gainerako zientziekin ere zerikusia baitu (hidrologia, ozeanografia, ingurumena, sektore energetikoa, agronomia, trafikoa, aseguruak, garraioa, turismoa,...). Hori horrela, aurrekontuen aldetik urte zaila izan arren, jarraipen- eta zaintza-estazio guztiak mantendu eta, gainera, gehitu egingo dira -betiere ahal den neurrian-, Uraren Euskal Agentziarekin eta beste erakunde eta instituzio batzuekin elkarlanean. Itsasertzeko plataformei eta buiei dagokienez, arazo berberarekin jarraitzen dugu, hau da, buien bizitza baliagarriaren amaiera. Hori dela eta, horiek berritzeko ekipamendua berritzeko plan bat ezarriko da.

Hauek dira helburu orokorrak:

1.- Uholde Arriskuaren aurrean Larrialdia Planifikatzeko Babes Zibileko Oinarrizko Jarraibidea aintzat harturik, Uraren Euskal Agentziarekin eta foru-aldundiekin batera jarraituko dugu neurketa-elementu hidrometrikokoak eta meteorologikoak jartzen UAEE horietan (Uholde Arrisku Esanguratsua duten Eremuak) eta beste puntu garrantzitsu batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroetan zein erkidego arteko arroetan.

2.- Babes zibilaren eta autobabesaren arloan jarraitu egingo dugu programa teknikoak eta dibulgatzaileak egiten, eragin meteorologikoen ondoriozko babes zibileko eta autobabeseko jardueren eraginkortasuna hobetzeko, era horretan meteorologiaren eragin txarrak gutxitze aldera. Komunikabideetan etengabeko presentzia izaten jarraituko dugu.

Este año no hay grandes variaciones respecto del trabajo que se venía desarrollando. Se continúa como aspecto más relevante en el desarrollo de este área la profundización en los trabajos relacionados con la meteorología adversa, su predicción y su seguimiento, teniendo como objetivo básico la autoprotección y minimización de daños. No olvidamos el resto de los campos propios de la meteorología, ciencia que es prominentemente horizontal estando relacionada no solamente con temas antropológicos, sino también con el resto de ciencias (hidrología, oceanografía, medio ambiente, sector energético, agronomía, tráfico, seguros, transporte, turismo...). Así, a pesar de ser un año presupuestariamente complicado, no sólo se van a mantener todas las estaciones de seguimiento y vigilancia existentes sino que se van a incrementar, en la medida en que se pueda, en colaboración con la Agencia Vasca del Agua y otros organismos e instituciones. En el caso de las plataformas marítimo-costeras y boyas continúa la problemática del fin de la vida útil de dicho material, por lo que se establecerá un plan de renovación de equipamiento para su renovación.

Los objetivos genéricos son:

1.- En atención a los requerimientos de la Directriz Básica de Planificación de Protección Civil ante el Riesgo de Inundaciones, continuará, junto con la Agencia Vasca del Agua URA y Diputaciones Forales, la implantación de elementos de medición hidrométricos y meteorológicos en dichas ARPSIS (Áreas de Riesgo Potencial Significativo de Inundaciones) y otros puntos significativos, tanto en cuencas intracomunitarias como intercomunitarias del País Vasco.

2.- Continuar con el desarrollo de programas técnicos y divulgativos para mejorar la operatividad de las actuaciones en materia de protección civil y autoprotección generadas por efectos meteorológicos, para minimizar los efectos negativos que éstas causan. La presencia en los medios de comunicación es continua.

3.- Gure zerbitzuek emandako informazioa, izaera orokorrekoa izan zein espezializatua izan, talde adierazgarri eta komunikabide gehiagotara iristeko asmoz, informazioaren zabalkundea hobetu egingo da. Alde batetik web-orria hobetzen jarraituko dugu eta; bestetik, "Twitter eta Youtube" bezalako gizarte-sare berrien erabileran sakonduko dugu. Halaber, web-orria mugikorretara egokituko da. Horretaz guztiaz gain, jarraituko dugu horrekin lotutako beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko eta komunikatzeko harremanak egituratzen, horri esker datu guztiak aprobetxatu ahal izateko eta baliabideak optimizatzeko. Herritarrek boluntariora meteorologikoarekin inplikatzeko ere jarraituko dugu.

4.- Aldagai meteorologikoetatik kalitatezko datuak eskuratzea eta; horretarako, estazioen eta beren sentsoreen adierazgarritasuna eta estazioen kalibrazioa hobetzen jarraitu behar da. URArekin batera, estaldura hobea behar edo estaldurarik ez duten puntuetan estazio meteorologiko berriak jartzea.

3.- Con el fin de que la información, tanto generalista como especializada, suministrada por nuestros servicios llegue más fácilmente a un mayor número de grupos significativos y a medios de comunicación se mejorará la difusión de la información continuando por un lado, con la mejora de la página Web, por otro, profundizar en la utilización de las nuevas redes sociales como "Twitter y Youtube" así como la adecuación de la web a los móviles. Todo ello sin dejar de estructurar las relaciones de comunicación y cooperación con otras instituciones relacionadas para el aprovechamiento conjunto de los datos y la optimización de los diferentes recursos así como implicando a la ciudadanía con voluntariado meteorológico.

4.- Obtener datos de calidad de las variables meteorológicas, para lo cual hay que seguir mejorando la representatividad de las estaciones, de los sensores de las mismas y la calibración de las mismas. Instalar, junto con URA nuevas estaciones meteorológicas en aquellas áreas que precisen una mejor cobertura o bien carezcan de la misma.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1.- Uholde Arrisku Handia duten Eremuetako (UAEE) kontrol-puntuak jartzea, URAren Euskal Agentziarekin eta Foru Aldundiekin koordinatuta.		1.- Instalación coordinada con la Agencia Vasca del Agua URA y otras Instituciones de puntos de control en las áreas con riesgo potencial significativo de inundación (ARPSIS).
1.1.- Uholde Arrisku Handia duten Eremuetako (UAEE) puntu kontrolatuak.	3	1.1.- Nuevos puntos de áreas con riesgo potencial significativo de inundación controlados (ARPSIS).
2.- Programa teknikoak eta dibulgatzaileak.		2.- Programas técnicos y divulgativos
2.1.- Meteorologia kaltegarriari buruzko hitzaldiak zenbait talde teknikorentzat.	3	2.1.- Charlas o conferencias sobre meteo adversa a diversos colectivos técnicos.
3.- Informazioa hobeto ematea.		3.- Mejora del suministro de información.
3.1.- Sarrera orokorreko web-orria hobetzea.	1	3.1.- Mejora de la página web de acceso general.
3.2.- Sarrera mugatuko web-orria hobetzea.	1	3.2.- Mejora de la página Web de acceso restringido.
3.3- www.euskalmet.euskadi.net. orrialdeak izan dituen bisiten kopurua. (milioiak).	11	3.3.- Número de visitas totales anuales a www.euskalmet.euskadi.net. (Millones).
3.4.- Web-orria hobetzea eta egokitzea, baita mugikorretatik Euskalmeten eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren informazioa eskuratzeko aplikatiboak ere.	1	3.4.- Mejorar y adecuar la Web y los aplicativos para el acceso desde móviles a información de Euskalmet y de la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología.
3.5.- Telefono mugikorren bidez web-orrira urtean egindako bisiten kopurua guztira. (Milioiak).	4	3.5.- Número de visitas totales anuales a página Web través de teléfono móvil. (Millones).
3.6.- @Euskalmeteko erabiltzaileak Twitterren.	60.000	3.6.- Personas usuarias de @Euskalmet en Twitter.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3.7.- Informazio-twit berriak.	5.000	3.7.- Twitts nuevos de información.
4.- Estazioak hobetzea eta berriak jartzea.		4.- Mejora de estaciones e instalación de nuevas estaciones.
4.1.- Hobetu beharreko estazioen kopurua.	10	4.1.- Número de estaciones a mejorar.
4.2.- Instalatu beharreko estazio berrien kopurua.	2	4.2.- Número de nuevas estaciones a instalar.
4.3.- Plan berezi baten bidez mantendu beharreko buia ozeanografikoak.	2	4.3.- Boyas Oceanográficas a mantener mediante un plan especial.

PROGRAMA
6113 JOKO ETA IKUSKIZUNAK
ARDURADUNA
07 SEGURTASUN
JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARIA

PROGRAMA
6113 JUEGO Y ESPECTÁCULOS
RESPONSABLE
07 SEGURIDAD
DIRECTOR DE JUEGO Y ESPECTÁCULOS

MEMORIA

Aldez aurretik esan behar da Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak (JIZ) 2016ko ekitaldirako dituen helburuak, aurreko ekitaldietan bezala, "2013-2016 Plan Estrategikoaren Hedapena. Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza" izeneko dokumentuan azaltzen direla. Bertan laurteko horretarako helburuak, ekintzak eta adierazleak jaso dira, dagokien kronograma ere barne sartuta.

Joko-arloari dagokionez, 2016ko ekitaldian zehar jokoaren azpisektoreak integratu eta arrazionalizatzeko azterlana egiten jarraitu nahi dugu, betiere beren elementu komunak kontuan hartuz. Horretarako, 2015ean zehar, Euskadin Jokoaren Erregelamendu bat, hau da, Euskadin jokoaren zeharkako arau integratu bat lantzen ari gara eta 2016an hori onartzeko asmoa daukagu. Erregelamendu horrek gaur egungo araudi guztiak barne hartuko ditu, tramitazio telematikoaren erabilera sustatuko du eta "joko arduratsuen" eta "erantzukizun sozial korporatiboaren" alde egiten jarraituko du.

Horrez gain, joko arduratsua sustatzen jarraituko dugu. Asmo horrekin, "jokalariaren estatutua" ezarriko dugu, jokoko publizitate-kanpaina guztietan joko arduratsuari buruzko informazio-mezuak jartzeko derrigortasuna, baita joko-enpresen titularrek eta beren langileek prestakuntza-ikastaroak egiteko beharrezana ere. Gainera, enpresa bati joko arduratsua sustatzeagatik saritzeko mekanismo bat ere ezarriko da.

2016an zehar, EAEko gazteek ausazko eta apustu-jokoaren aurrean izaten duten erantzunari buruzko azterlan bat egingo da, horretarako espresuki prestatutako bideojoko bat erabiliz. Bideojokoak gazteei erakutsiko die erabakiak hartzeko orduan izan ditzaketen bide ezberdinak.

Kexen, erreklamazioen eta salaketen kudeaketari dagokionez, 2016ko ekitaldian zehar beren kudeaketa bateratu egingo da Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuarekin koordinatuta.

Hay que indicar que los objetivos de la Dirección de Juego y Espectáculos (DJE) del Departamento de Seguridad, para el ejercicio 2016, como para los ejercicios anteriores, están contenidos en el documento denominado "Despliegue del Plan Estratégico 2013-2016. Dirección de Juego y Espectáculos", en el que se señalan los objetivos, acciones e indicadores para dicho cuatrienio con el correspondiente cronograma.

En lo que al área de juego se refiere, durante el ejercicio 2016 se pretende continuar con el estudio para la integración y racionalización de los diferentes subsectores de juego en función de sus elementos comunes. Para ello se está elaborando durante el 2015 y se pretende aprobar en 2016 un Reglamento Integral del Juego en Euskadi, una norma integrada del juego en Euskadi transversal, que integre todas las normativas existentes hasta la fecha, que impulse el uso de las tramitaciones telemáticas y que siga apostando por el "juego responsable" y la "responsabilidad social corporativa".

También, se va a continuar con la promoción del juego responsable. Estableciendo "el estatuto de la persona jugadora", la obligatoriedad de incluir mensajes informativos del juego responsable en todas las campañas publicitarias de juego, así como la necesidad de realizar cursos de formación para titulares y personas empleadas de empresas de juego. Además, se va a establecer un mecanismo de reconocimiento a una empresa por fomento del Juego Responsable.

Durante el 2016 se va a llevar a cabo un estudio para ver la respuesta de los jóvenes de nuestra Comunidad ante los juegos de azar y las apuestas, dicho estudio se llevará a cabo mediante la realización de un videojuego, preparado para ello, que muestre los distintos caminos disponibles ante la toma de decisiones de los propios jóvenes.

En cuanto a la gestión de quejas, reclamaciones y denuncias, durante el ejercicio 2016 se unificará la gestión de las mismas en coordinación con Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

Ikuskizunetako programari dagokionez, nahitaez bermatu behar da aisialdiko jarduerak segurtasun-neurri guztiak betez egiten direla.

Kontrolatzeko beharra aisialdi-zerbitzu horiek erabiltzeko herritarren eskakizun handiagoak bultzatuta dago. Kalitatezko zerbitzuak eskatzen dira eta berorietan sartzen da profesionaltasunez eta segurtasunaren estandar zabalen arabera egitea.

Horretarako, Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legea onartu ondoren, haren garapena egiten jarraituko da ikuskizunei eta jolas-jardueri buruzko erregelamendua onartzuz. Araudi horretan, hala nola, alderdi hauek garatuko dira: ekitaldi mota horren erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna, enpresarien eta antolatzaileen konpromisoa segurtasun-estandarrik indartu eta areagotzeko, antolatzaileen kaudimena eta profesionaltasuna bermatzeko neurri gehigarriak hartzea, edukiera kontrolatzeko sistema ikuskagarriak izateko derrigortasuna garatzea eta, jokabide baztertzailak eragozte aldera, sarrerarekin eta sarrera ukatzeko eskubidearekin loturiko pertsonen inguruko berme handiagoak.

Orobat, funtsezkoa da ikuskizunen arloan eskumenak dituzten administrazio guztien arteko lankidetzarako mekanismoak ezartzea elkarlana eraginkorragoa izan dadin. Hori dela eta, koordinazio-mekanismoak ezarri nahi dira EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearekin, Ertzaintzarekin, Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzarekin eta abarrekin.

Beste alde batetik, antolatzaile, lokalen titular eta langileentzako prestakuntza-ikastaroak sustatuko dira; hain zuzen, lokaletako, ikuskizunen eta jolas-jardueren segurtasuna bermatzeko xedeaz.

Bukatzeko, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren jardueran atal garrantzitsu bat dago; hau da, kirolean agertzen diren indarkeria, arrazismo- eta xenofobia-adierazpenak eta –oro har– intolerantzia-jarrerak desagerraraztea. 2016an “kirolean elkarbizitza sustatzeko astea” izeneko kanpaina burutuko da, kirol-jardueretan balore positiboak sustatzeko.

Halaber, 2016. urtean zehar zehapen-espeditenteak irekiko zaizkie legez kontrako jokabideak azaltzen dituzten pertsonen edo erakundeen.

Gainera, hartutako konpromisoak gauzatuko dira 2014. urtean kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako borrokaren eremuan Segurtasun Sailaren eta klub, kirol-sozietate anonimo eta kirol-federazioen artean sinatuko lankidetzeta-protokoloari loturik. Zehazki, joko garbia eta jardunbide arduratsuak sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak egingo dira.

Garrantzitsua da, zehapenak direla eta, kirol-esparruetan sartzeko debekuak benetan eraginkorrak izatea eta; horretarako, beharrezko neurriak ezarriko dira.

En cuanto al programa de Espectáculos se refiere, resulta ineludible garantizar que las actividades de ocio se desarrollan cumpliendo todas las medidas de seguridad.

La necesidad de control viene alentada por una mayor exigencia de la ciudadanía en el acceso a estos servicios de ocio. Se demandan servicios de calidad y, en ellos se incluyen, que sean desarrollados con profesionalidad y de acuerdo a estándares amplios de seguridad.

Para ello, una aprobada la Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas, se continuará con el desarrollo de la misma a través de la aprobación de un reglamento de espectáculos y actividades recreativas. En dicha normativa se desarrollarán aspectos tales como: la carta de derechos y obligaciones de la persona usuaria de este tipo de eventos, el compromiso de empresarios y organizadores para reforzar y aumentar los estándares de seguridad, la exigencia de medidas adicionales para garantizar la solvencia y profesionalidad de organizadores, el desarrollo de la obligatoriedad de contar con sistemas auditables de control de aforo, mayores garantías de las personas vinculadas con el acceso y el derecho de admisión para evitar conductas discriminatoria.

También resulta fundamental establecer mecanismos de cooperación entre todas las administraciones con competencia en materia de espectáculos, al objeto de que la colaboración sea más eficaz para lo cual se pretende establecer mecanismos de coordinación con la Asociación de municipios vascos-EUDEL, la Ertzaintza, la Dirección de Atención de Emergencias, etc.

Por otra parte, se impulsará el desarrollo de cursos de formación para organizadores, titulares de locales y personal empleado en orden a garantizar la seguridad de locales, espectáculos y actividades recreativas.

Por último, hay una parcela de actuación importante en la actuación de la Dirección de Juego y Espectáculos y tiene que ver con la erradicación de la violencia, las expresiones de racismo, xenofobia y en general las actitudes de intolerancia en el deporte. En el 2016 se va a llevar a cabo una campaña denominada "semana por la convivencia en el deporte" para afianzar los valores "positivos" en la práctica de los deportes.

Así mismo, durante el 2016, se incoarán expedientes sancionadores a las personas o entidades que realicen conductas contrarias ilícitas.

Además, se llevará a la práctica los compromisos adquiridos en relación con el Protocolo de colaboración entre el Departamento de Seguridad y los clubes, sociedades anónimas deportivas y federaciones deportivas en materia de lucha contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte suscrito en 2014. En concreto se realizarán campañas de sensibilización para el fomento del juego limpio y prácticas responsables.

Resulta importante que las prohibiciones de acceso a los recintos deportivos con motivo de sanciones, sean realmente eficaces, para lo cual se implementarán las medidas precisas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>JOKOA:</p> <p>1. JOKO AZPISISTEMEN ETA MODALITATEEN INTEGRAZIOA ETA ARRAZIONALIZAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azpisektoreak beren ezaugarri komun eta elementu bereizleen arabera aztertzea eta taldekatzea. • Jokoaren zerga-arloan beste administrazio batzuekiko azterketa-guneak bultzatzea. • Joko telematikoaren ezagutzan sakontzea, baita joko presentzialarekiko duen loturan ere. • Jokoaren azpisektoreentzako zeharkako neurri komunak onartzea (publizitate-arloa eta joko-lokaletan sartzeko baldintzak). • Jokoaren arloko egungo araudi-esparrua testuinguru sozio-kultural berriaren arabera egokitzea Euskadiko Jokoaren Erregelamendu integratua onartzuz. <p>2. JOKO ARDURATSUA SUSTATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzaileen eskubideak indartze aldera, kexak, erreklamazioak eta gorabeherak jasotzeko protokoloa ezartzea. • Jokoaren jardueren inguruko sustapen- eta publizitate-ekintzen baimena joko arduratsuari buruzko informazio-mezuekin lotzea. • Araudian joko arduratsuen arloan joko-enpresen titularrek eta beren langileek prestakuntza-ikastaroak egin behar dituztela ezartzea. • Jokalariaren estatutua onartzea, non jokoaren jarduerekin loturiko eskubideak eta betebeharrak adieraziko diren. • Joko-elementuak dauden establezimenduetan joko arduratsuekin loturiko kartelak jartzeko betebeharra xedatzea. • Jarrera zuhur eta kritikoa sortzeko kanpainak egitea eta; aldi berean, jokoaren alderdi on eta txarrez sentsibilizatu eta jabeatzeko. • Bideojoko bat sortzea eta zabaltzea, Euskadiko gazteek, oro har, jokoari buruz daukaten pertzepzioari buruzko informazioa lortzeko. 		<p>JUEGO:</p> <p>1. INTEGRACIÓN Y RACIONALIZACIÓN DE LOS DIFERENTES SUBSISTEMAS Y MODALIDADES DE JUEGO.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Analizar y agrupar los subsectores en función de características comunes y elementos diferenciadores. • Impulsar foros de estudio con otras administraciones en materia tributaria de juego. • Profundizar en el conocimiento del juego telemático y en su relación con el presencial. • Aprobar medidas transversales comunes para subsectores de juego (materia de publicidad y condiciones de acceso a locales de juego). • Adecuar el marco normativo actual en materia de juego, de acuerdo con el nuevo contexto socio-cultural, aprobando el Reglamento integrado de Juego en Euskadi. <p>2. PROMOCIÓN DEL JUEGO RESPONSABLE</p> <ul style="list-style-type: none"> • Implantar protocolo para recogida de quejas, reclamaciones e incidencias para reforzar los derechos de las personas usuarias. • Vincular la autorización de acciones promocionales y publicitarias de actividades de juego a la inclusión de mensajes informativos de juego responsable. • Establecer en la normativa la obligación de realizar cursos de formación por parte de titulares y personas empleadas de empresas de juego en materia de juego responsable. • Aprobar un Estatuto de la persona jugadora en el que se expresen los derechos y obligaciones en relación con las actividades de juego. • Determinar la obligación de instalar cartelería relacionada con el juego responsable en todos los establecimientos donde haya elementos de juego. • Realizar campañas para generar una actitud reflexiva y crítica, y a la vez, sensibilizar y hacer conscientes de los aspectos positivos y negativos del juego. • Realización del videojuego y correspondiente difusión del mismo, de cara a conseguir la percepción que del juego en general tienen los jóvenes vascos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>IKUSKIZUNAK</p> <p>1. IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK EGITEKO SEGURTASUN BALDINTZAK EZARTZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko lege berria onartzea eta garatzea. Araudian noizbehinkako ikuskizunak (noiz edo noiz egiten diren kontzertuak, Gabonetako kotilioiak,...) egiteko neurri gehigarriak eskatzea; hain zuzen, ikuskizunen antolatzaileen profesionaltasuna eta kaudimena –hala nola, fidantzak, langile espezializatuak dituztela egiaztatzea, etab.)- bermatzeko. Komunikabideetan arlo honetako segurtasunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea. Antolatzaile, lokalen titular eta enplegatutako langileentzat jarduera honekin zerikusia duen segurtasunari buruzko prestakuntza-ikastaroak sustatzea. <p>2. TOKIKO ERAKUNDEEN ETA JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARITZAREN ARTEAN ESKUMENAK BANATZEKO MEKANISMO ARGIAK EZARTZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> EUDELekin lan-taldeen sorrera sustatzea, gai hauetan lan egitera bideratuta: ordutegiak arautzea, jendearentzat zabalik dauden lokalen eta esparruen segurtasun-baldintzak eta, oro har, Ikuskizun Publikoak eta Jolas-jarduerak arautzeko Legea garatzeko Erregelamendutik eratortzen diren gaiak. <p>3. IKUSKIZUNETAKO ETA JOLAS JARDUERETAKO IKUSLEEN ESKUBIDEAK ARGI ETA GARBI ZEHAZTEA</p> <ul style="list-style-type: none"> Ekitaldi-mota honen erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna lokal guztietan berorien esku eta ikusteko moduan jartzea. Sarrerarekin eta sarrera ukatzeko eskubidearekin loturiko pertsonen bermeak indartzea baztertzailak edo araudiaren kontrakoak diren jokabideak eragozteko. Enpresarien eta antolatzaileen konpromisoa sustatzea ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten direnean, segurtasun-estandarrik indartu eta areagotzeko. 		<p>ESPECTÁCULOS</p> <p>1. ESTABLECER LAS CONDICIONES DE SEGURIDAD PARA LA CELEBRACIÓN DE ESPECTÁCULOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS</p> <ul style="list-style-type: none"> Aprobación y desarrollo de una nueva ley de Espectáculos y Actividades Recreativas. Exigir en la normativa medidas adicionales para la celebración de espectáculos ocasionales (conciertos puntuales, cotillones de navidad...) en orden a asegurar la profesionalidad y solvencia de las personas organizadoras de espectáculos tales como fianzas, acreditación de contar con personal especializado etc. Realizar campañas de sensibilización e información en medios de comunicación sobre la seguridad en esta materia. Impulsar el desarrollo de cursos de formación para personas organizadoras, titulares de locales y personal empleado, en materia de seguridad relacionada con esta actividad. <p>2. ESTABLECER MECANISMOS CLAROS DE DISTRIBUCIÓN DE COMPETENCIAS ENTRE LAS ENTIDADES LOCALES Y LA DIRECCIÓN DE JUEGO Y ESPECTÁCULOS</p> <ul style="list-style-type: none"> Impulsar la creación de grupos de trabajo con EUDEL orientados a trabajar los siguientes temas: regulación de horarios, condiciones de seguridad de locales y recintos de pública concurrencia, y en general, las cuestiones emanadas del Reglamento de desarrollo de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. <p>3. DETERMINAR CON CLARIDAD LOS DERECHOS DE LOS ESPECTADORES Y ESPECTADORAS DE LOS ESPECTÁCULOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS</p> <ul style="list-style-type: none"> Establecer la Carta de derechos y obligaciones de la persona usuaria de este tipo de eventos, a su disposición y visible en todos los locales. Reforzar las garantías de las personas vinculadas con el acceso y el derecho de admisión para evitar conductas discriminatorias o contrarias a la normativa. Impulsar el compromiso de empresarios y personas organizadoras para reforzar y aumentar los estándares de seguridad en la celebración de espectáculos y desarrollos de actividades recreativas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>4. ZUZENDARITZAREN, ERTZAINZAREN ETA UDALZAINGOEN ARTEKO KOORDINAZIOA IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN KONTROLEAN ETA IKUSKAPENEAN IZAN BEHAR DUTEN ESKU HARTZEARI LOTURIK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Segurtasun-maila batzuk bermatzen dituzten ikuskapen-estandarrak sortzea, kontrol-lanen ardura duen administrazio edo kidego ikuskatzailea edozein dela ere. • Udalekin batera, ordutegiaren erregistro bateratua sustatzea, administrazio bakoitzak onartutako ordutegi-aldaketak kontsultatu ahal izateko, arlo hori arautzen duen Dekretuaren arabera. <p>5. KIROLEKO INDARKERIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirol ikuskizunetan joko garbia eta jarrera arduratsua sustatzea. <ol style="list-style-type: none"> 1. Joko garbia sustatzeko "kirolean elkarbizitza sustatzeko astea" izeneko kanpaina egitea. 2. Joko garbia eta jardunbide arduratsua sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak egitea. • "Zero" tolerantzia mota horretako jarreraren aurrean. <ol style="list-style-type: none"> 1. Aipatutako jardunbideen aurkako jarrerengatik erantzuleak diren pertsonak edo entitateak zehatzea. 		<p>4. COORDINACIÓN DE LA DIRECCIÓN, ERTZAINZAREN Y POLICÍAS LOCALES EN RELACIÓN CON SU PARTICIPACIÓN EN EL CONTROL E INSPECCIÓN DE ESPECTÁCULOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS</p> <ul style="list-style-type: none"> • Crear estándares de inspección que garanticen unos niveles de seguridad independientemente de la administración o cuerpo de inspección encargado de las tareas de control. • Impulsar un registro común de horarios con los ayuntamientos para consulta de las modificaciones de horarios autorizadas por cada administración, en función del Decreto que regula esta materia. <p>5. VIOLENCIA EN EL DEPORTE</p> <ul style="list-style-type: none"> • Promoción del juego limpio y actitud responsable en los espectáculos deportivos. <ol style="list-style-type: none"> 1. Realización de la campaña "semana por la convivencia en el deporte" para el fomento del juego limpio. 2. Realizar campañas de sensibilización para el fomento del juego limpio prácticas responsables. • Tolerancia "cero" ante este tipo de actitudes. <ol style="list-style-type: none"> 1. Sancionar a las personas o entidades responsables por conductas contrarias a las prácticas citadas.



Administrazio Orokorra
Administración General

GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOERA - GASTUA
ESTADO DE GASTOS E INGRESOS - GASTO

ORGANIKOA / ORGANICA	EKONOMIKOA / ECONOMICA	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
07 Segurtasuna		2211 Segurtasuna. Egitura eta Laguntza
07 Seguridad		2211 Estructura y Apoyo de Seguridad

EURO / EUROS

SEKZIOA SECCION	PROGRAMA PROGRAMA	ZERBITZUA SERVICIO	AZPIKONTZEP. SUBCONCEPTO	PARTIDAK PARTIDAS		PARTIDAK PARTIDAS	GUZTIZKOAK TOTALES
07					SEGURTASUNA SEGURIDAD		5.892.817
07	2211				SEGURTASUNA. EGITURA ETA LAGUNTZA ESTRUCTURA Y APOYO DE SEGURIDAD		5.892.817
07	2211	00			Saila Consejería		496.962
07	2211	00	1		Langile-gastuak Gastos de personal		496.962
07	2211	00	10		Goi-karguak Altos cargos		86.930
07	2211	00	100		Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos		86.930
07	2211	00	10000		Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos		86.930
07	2211	00	10000	000	Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos	86.930	
07	2211	00	11		Behin-behineko langileak Personal eventual		334.162
07	2211	00	110		Behin-behineko langileen ordainsariak Retribuciones del personal eventual		334.162
07	2211	00	11000		Behin-behineko langileen ordainsariak Retribuciones del personal eventual		334.162
07	2211	00	11000	000	Behin-behineko langileen ordainsariak Retribuciones del personal eventual	334.162	
07	2211	00	16		Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak Cuotas, prestaciones y gastos sociales		75.870
07	2211	00	160		Erakundearen konturako kotizazio sozialak Cotizaciones sociales a cargo de la entidad		75.870
07	2211	00	16000		Erakundearen konturako kotizazio sozialak Cotizaciones sociales a cargo de la entidad		75.870
07	2211	00	16000	000	Erakundearen konturako kotizazio sozialak Cotizaciones sociales a cargo de la entidad	75.870	
07	2211	01			Saileko Kabinetearen Zuzendaritza Dirección del Gabinete de la Consejería		269.526
07	2211	01	1		Langile-gastuak Gastos de personal		119.572
07	2211	01	10		Goi-karguak Altos cargos		67.087
07	2211	01	100		Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos		67.087
07	2211	01	10000		Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos		67.087
07	2211	01	10000	000	Goi-karguen ordainsariak Retribuciones de Altos Cargos	67.087	
07	2211	01	12		Funtzionarioak Funcionarios		31.730
07	2211	01	120		Funtzionarioen ordainsariak Retribuciones de funcionarios		31.730
07	2211	01	12000		Funtzionarioen ordainsariak Retribuciones de funcionarios		31.730

SEKZIOA SECCION	PROGRAMA PROGRAMA	ZERBITZUA SERVICIO	AZPIKONTZEP. SUBCONCEPTO	PARTIDAK PARTIDAS		PARTIDAK PARTIDAS	GUZTIZKOAK TOTALES
07	2211	01	12000	000	Funtzionarioen ordainsariak <i>Retribuciones de funcionarios</i>	31.730	
07	2211	01	16		Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak <i>Cuotas, prestaciones y gastos sociales</i>		20.755
07	2211	01	160		Erakundearen konturako kotizazio sozialak <i>Cotizaciones sociales a cargo de la entidad</i>		20.755
07	2211	01	16000		Erakundearen konturako kotizazio sozialak <i>Cotizaciones sociales a cargo de la entidad</i>		20.755
07	2211	01	16000	000	Erakundearen konturako kotizazio sozialak <i>Cotizaciones sociales a cargo de la entidad</i>	20.755	
07	2211	01	2		Funtzionamendu-gastuak <i>Gastos de funcionamiento</i>		149.954
07	2211	01	23		Kanpoko beste zerbitzu batzuk <i>Otros servicios exteriores</i>		149.954
07	2211	01	236		Komunik. inst., publizitat. eta harreman publikoak <i>Comunicación institucional, publicidad y rela.pú.</i>		84.954
07	2211	01	23611		Protokolo eta ordezkapen jarduerak <i>Atenciones protocolarias y representativas</i>		84.954
07	2211	01	23611	000	Protokolo eta ordezkapen jarduerak <i>Atenciones protocolarias y representativas</i>	84.954	
07	2211	01	238		Kanpoko beste zerbitzu batzuk <i>Otros servicios exteriores</i>		65.000
